

# ttüpi-ttapa

1996ko apirilak 25 • 180. zenbakia


Elkarrizketa

**Jose M<sup>2</sup> ARRIBILLAGA**

«Indarra egiteko komenigarria da ELA eta LABen elkartasuna»

HAIZE PARKEAK  
ENERGIA  
ESPORTATZAILE  
BIHURTUKO GARA

# Euskara aukera ona



## ESKOLATZEA 96

Nafarroak dituen bi hizkuntzek -euskara eta gaztelania- gure herriaren kultur ondarea aberasten dute. Oraingo honetan zure haurrak biak ezagutzeko aukera dauka euskarazko irakaskuntza ereduren batean matrikula baitezakezu. Horrela, ahaleginik gabe gure komunitatearen errealitatea ezagutuko du eta beste hizkuntza batzuk geroago ikasteko erraztasun handiagoa eta lan perspektiba hobek izango ditu. Euskara aukera ona da. Eskatu argibideak. Tel.: 10 66 16

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua de Navarra

Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia  
Laguntzaileak: Udal Euskara Zerbitzuak

DATUAK

❖ Jose M<sup>a</sup> Arribillagak 39 urte ditu eta beraterra da.

❖ Baztan, Bortziriak eta Malerrekako ELA sindikatuaren arduraduna da.

❖ Berako bulegotik eramaten dute eskualdeko koordinazioa 5-6 militante-  
ren artean.

❖ ELAko liberatu gisa urte bat beteko du orain eta duela 16 urte afiliatu zen.

❖ Berriki arte Berako Funbera lantegian aritu da lanean.

❖ Baztan, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekako lantegi guzien artean dauden 132 delegatutetatik 71 ELAkoak dira (%53,7a).

TESTUA:  
JOXEMANUEL IRIGOIEN  
ARGAZKIA:  
KARMELE TOLOSA

Jose M<sup>a</sup> ARRIBILLAGA:

# «Indarra egiteko komenigarria da ELA eta LABen elkartasuna»

**GALDU OTE DU MAIA-TZAREN 1AK BERE ZENTZU ERREIBINDIKATIBOA?**

ELArentzat zentzu erreibindikatioa du. Langabezia eta lanaren prekarizazioak bultzatzen digu horretara, baita aurten ere.

**ZERTARATUKO DA EGOERA HORI HEMENDIK URTE BATZUETARA?**

Dagoen joera ikusita, gauza gutti aldatuko da, okerrera ez bada. Beharbada langileon debilidadea da ateratzen diren legeak ateratzea eta dagoen mar-txa egotea. Lege hoiek Espainiako Parla-mentuan erabakitzen dira eta guri hemen zuzenean sartzen dizkigute.

**HORTAZ, MOBILIZIZIO KAPAZIDADEA GALDU EGIN DA?**

Nire ustez beherakada somatu da. Langile lanean hasten denean eta pixka bat goxatzen delarik, komodo bihurtzen da. Bere buruarentzat segurtasuna aurkitzen duenean, ez dakit zenbateraino den bertzeekin solidario.

**ESKUALDEKO LAN EGOERARI ERRADIOGRAFIA EGITEA ESKATUTA, ZER AIPATUKO ZENUKE?**

Egoera ez dago hain gaizki. Enplegua eska-



xa izanen da eta langabezia ere bada polliki, baina hala ere, beharaka egin beharrean nire ustez mantendu egin da. Laminazio-  
ek bere historia hor du, Funberak urte txarrak pasatu ondotik orain bixkortu da, Savera indarrean dago, Alco hor dabil... Zera ikusten

du: ez dela ari enplegua sortzen, eta hor badugula errua 'ordu extrak' direla eta. Horrek, enplegu gehiago ateratzea galeratzen du.

**MARIO GAVIRIA SOZIOLOGOAK BERRIKI ADIERAZI DUENEZ, BENETAKO LANGABEZIA TASA ERRATEN DENA BAINO BAXUAGOA DA. ZER USTE DUZU?**

Horrek bi helburu izaten ahal dituela: jendea ikaratzea eta enplegu beltza sortzea, eta bertetik, lantegiko langilea erran dugun go-

xotasun horretan akomodatzea.

**AZKENIK, ZE BALANTZE EGITEN DUZU ELA ETA LABEN ARTEKO BATAZUN SINDIKALAZ?**

Gure ustez indarra egiteko komenigarria da gure nortasun bere-tua duten bertze sindikatuekin elkartzea, eta zentzu horretan, guk aurrera segituko dugu. Hori argi dugu. Gero gerta liteke lantegi batzutan problemak izatea, baina indarra egin behar denean, elkarrekin egiten dugu.

» «Eskualdeko egoera ez dago hain gaizki. Enplegua eskaxa izanen da eta langabezia ere bada polliki, baina hala ere, beharaka egin beharrean nire ustez mantendu egin da»

## HAIZE PARKEAK

# IRABAZIETATIK ZATI BAT HERRIENTZAT IZATEA ESKATU DUTE UDALEK



**Badira aste batzuk Leitzaoko Haize Parkearen obrak hasiak direla. San Ferminetarako, 6 errota tente egonen dira seguruenik. Zortzi urteren buruan, gure eskualdeak argindar ugari esportatuko du. Ikusi behar horrek zenbateko irabaziak ekarriko dizkion.**

TESTUA :  
JOXEMANUEL IRIGOIEN  
ARGAZKIAK:  
JOXE LACALLE

**h**aize Parkeak ate joka ari dira gure eskualdeko mendi hegaletan. Zortzi urteren buruan, 2004 urterako, mapan markatutako guziak martxan egotea espero da. Parke hoiak eraikitzen 15.690 milioi pezeta baino gehiago inbertituko du EHN enpresak (617 milioi libera inguru).

## EZ HERRI GUZIETAN

Hasieran besterik uste bazen ere, oraingoz baztertu dira Arantza, Goizueta, Ituren eta Zubietan egin gogo ziren Haize Parkeak. Izan ere, duela aste batzuk Nafarroako Gobernuak 'Udalez Gaineko' izendatu zuen EHNk bultzatutako Haize Parkeen proiektua. Proiektu horren arabera, Nafarroan 18 Haize Parke egin nahi dira, hoietatik 5 gure eskualdean.

Gerorako, erreserba modura, beste 4 gehiago egiteko aukera aurrikusten da, hoietako bat ere gure eskualdean.

## LEITZAN HASI DIRA OBRAK

Leitzan, ordea, hasiak dira Aritz mendiko obrak. 'Plan Berezia' urte hasieran argitaratu zen eta otsailan eman zion baimena udalak. Erabakiak, nolabaiteko oposizioa sortu zuen eta 286 herritarrek sinatu-

tako papera hartu zuen udalak baimena deuseztatzea eskatuz. Orain, batzorde bat dago martxan obrak ahalik eta kalte gutxien sortiz inguruan eta ECOLAN enpresa ari da obraren segimendua egiten. 32 erroretatik 14 ezarriko dituzte momentuz. Irekiko den bidea lurrezkoa izanen da eta turistek galerazia dute pasatzea. Udalak sentiberatasun berezia agertu du ingurua zaintzearen alde.

**Nafarroan  
22 Haize Parke  
eraiki nahi dira.  
15-20 urteren  
buruan, Nafarroak  
beretzat behar duen  
energiaren erdia  
baize erroten  
bitartez sortzea  
espero da.  
Gure eskualdea,  
balere, energia  
esportatzaile  
bihurtuko da.**



APIRILAREN 2AN HAIZE PARKEAK JARRIKO DIREN HERRIETAKO UDAL ETA KONTZEJU ORDEZKARIAK BILDU ZIREN LEITZAKO UDALETXEAN BESTEAK BESTE PATXI ZABALETA PARLAMENTARIAREN PROPOSAMENA AZTERTZEKO. PROPOSAMEN HORRETAN, PRODUKZIOAREN %5A HERRIENTZAT GELDITZEA ESKATZEN DA. UDAL GUZIAK BEGI ONEZ HARTU DUTE ETA LEHEN GESTIOAK EGINAK DITUZTE DAGOENEKO.

**IRABAZIEN %5A  
HERRIENTZAT GELDITZEA  
ESKATU DUTE**

«Haize Parkeen produkzioarekin ateratzen den irabaziaren %5a kokatua dagoen herriarentzat gelditzea» da Patxi Zabalera parlamentariak plazaratutako proposamena. EHN enpresari eta inguruko udalei bidezkoa iduritu zaie proposamena, eta orain, Nafarroako Parlamentuaren esku dago azken hitza. Ageri denez, herriak dira gutxien hartuko dutenak sortuko diren etekinetatik. Nafarroako Gobernuak BEZ zergaz gain, produkzio etekinen %33a biltzen du beretzat. ■



**FUNTZIONAMENDUA**

Errota bakoitzak 600 Kw.eko potentzia izanen du eta haizearen eraginez ardatz baten inguruan biraka ibiliko diren hiru beso. Beso hauetako bakoitzak 21 metroko luzera du. Energia elektrikoa sortzeko behar den ekipamendu tekniko guzua dorrearen gainean dago, 40 metroko alturan. Sortzen den argindarra dorre batetik bestera lurpetik eramaten da, azkenean, transformadore batera iritsi arte. Transformadore honetatik ateriko dira, gaur egun argindarra eramaten duen hari nagusira lotuko diren argi-hariak.

**PARKE BAKOITZAREN EZAUGARRIAK**

Parkea	Urtea	Inbertsioa (Milioi/Pta.)	Eremua (m)	Potentzia (Mw)	Herriak
Aritz	1996	3.296	158.000m <sup>2</sup>	44,2	Leitza
Belate	1999	3.839,7	192.650m	24,0	Baztan, Ultzama eta Donamaria
Belate	2001	3.298,9	204.400m	19,8	Baztan, Lantz eta Ultzama
Iruñarri	2002	2.795,9	213.850m	18,0	Eratsun eta Ezkurra
Sorattipi	2004	2.459,7	153.000m	15,6	Beintza-Labaien
DENETARA		<b>15.690,2</b>	<b>921.900m<sup>2</sup></b>	<b>121,6Mw</b>	

**ABANTAILAK**

- ▶ Garbia da, ez du ingurua kutsatzen.
- ▶ Agortezina da.

**DESABANTAILAK**

- ▶ Zarata eta inguruan duen inpaktoa.
- ▶ Hegaztiak kolpatzeko arriskua.

**10 Mw. nabikoa dira 11.000 familiaren argindar kontsumoa bornitzeko. Eskualdeko Haize Parkeek 121,6 Mw. sortuko dituzte, eskualdeko kontsumoa 18,4 aldiz bornitzeko baina.**

EGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.200 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE  
HERRIKO ETXEKO PLAZA, 1  
31780 BERA  
TFNOA: 63 11 88  
FAXA: 63 12 91

**zendaria:** Joxemanuel Iri-  
en. **Publizitatea:** Miren Kar-  
le Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor  
ozena, Joxemanuel Irigoien.  
**ministrazioa:** Amaia Goia.  
**redakzio taldea:** Pello Ape-  
xea, Juainas Paul, Kristina  
an, Bittori Telletxea.  
**riemaileak:** Joseba Azpiroz,  
eban Arozena, Juana Mari  
zar, Ainhoa Mutuberria, Iban  
si, Txema Aldabe, Pello Etxe-  
a, Txema Urroz, Patxi Otxan-  
ena, Ixabel Maia, Josune Etxe-  
ste, Pablo Mendiburu, Joseba  
rabide, Alizia Olaizola, Margari  
enike, Koro Irazoki, Mixel  
rendiain, Jacqueline, Elixabet  
rria, Garbiñe Maiz, Oskar  
perena, Alberto Sansiñena,  
lo Apezetxea, Aitor Arozena,  
stina Boan.

**laboratzaileak:** EHNE Nafa-  
a, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-  
a, Joxe Javier Etxeberria,  
ntxa Zabala...

**rimategia:** Graficas Ona.  
**ti-ttapa** ez du bere gain har-  
n derrigorrez, aldizkarian adie-  
tako erranen eta eritzien eran-  
kizunik.

**kunde Laguntzaileak:** Bera,  
tza, Goizueta, Areso, Baztan,  
dazubi, Zugarramurdi eta  
rako udalak, Bortzirietako  
skara Mankomunitatea,  
errekako Zerbitzu Mankomu-  
tea, Zugarramurdiko Akelarre  
artea...



Aldizkari honek Nafarroako  
obrenuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Liburuaren Eguna telebistaren urtean

#### Espero dezagun etorkizunean liburu-gintza sendotzea



Xabier IABEN  
Irakaslea Lekarozen

'Goenkale' telebista-saioa orain arte jende gehien bildu duen euskal produktua da; hala ere, *best seller* bat izateko argitaratutako 'Goenkale' liburuak arras irakurle guti erakarri du eta liburudendetako apaletan dago lozorroan. Zer erranik ez, gisa honetako itxurazko kontraesanen aitzinean, liburu-argitaratzaileek zein liburu-egileek izu-ikara bertzerik ez dute. TB eta ordenadorea bete-betean sartu zaizkiguneko garaiotan, badirudi euskal literatura modernoak eta euskal irakurleriak ez duela radarik izan edota ez zaiola aukerarik eman irakurle goi-erdiak. Inoiz ez da izan hainbertze euskaldun eskolatu eta, hala ere, aski osasuntsu dabilen euskal narratiba, esku hutsik eta burua makur itzultzen da irakurlearekiko 'norgehiagokatik'. (...) Ikastetxeetan ikasle gehienek urtebetean ez dute agindutako baina irakurtzen. Hemen errua irakasleona da: plazererako argitaratzen diren liburuak aztergai hotz bilakatzeak min haundia egiten dio literatura-ri zein ikasle-irakurleari.

#### Erreibindikatu behar da irakurketaren garrantzia



Jose Luis HUARTE  
Liburuzaina. Leitza

Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, inoiz baino gehiago erreibindikatu beharra dago liburuak eta irakurketaren garrantzia, ez informazio iturri hutsa bezala, baita azterketa kritiko eta erreflexiorako bide bezala ere, alde batetik, eta denbora pasa eta gozamenerako, bestetik. Liburutegia gehien erabiltzen dutenak ikasleak dira, askotan beren liburuak bakarrik erabiltzeko, baina gero eta gehiago kontsulta eta informazio biltzeko (lanak egiteko, etab.). Bestetik, haurrak eta helduak dira literatura gehien irakurri eta mailegu zerbitzua erabiltzen dutenak. Badago zer egin gazteek atseginez irakur dezaten lortzeko, baita jende helduari erakusteko irakurtzea ez dela nobelak irakurtzea bakarrik, badirela hainbat gida, argazki, bidaia, kontsulta liburuak, aldizkariak eta bar luze bat erraz irakurri eta 'ikusten' direnak eta bere esku, dohain, liburutegian daukatenak, liburutegira joateko ez dela ikaslea edo 'intelektuala' izan behar. Liburutegia denontzat dago irekia.

#### Liburuak baino gehiago saltzen dira aldizkari-egunkariak



Pilar JAUREGI  
Legarra Liburudenda

Orokorrean, gure liburudendan bederen, liburu gutti saltzen da. Eta saltzen diren liburuen artean, pixka bat denetarik dago, nobelak, ipuinak... Aldizkari eta egunkariekin konparatuz, liburuak guttiago saltzeak, ez dakit guttiago irakurtzen direla erran nahi ote duen; alde batetik hor daude liburutegiak (liburuak erosi gabe irakurtzeko aukera), eta bertzetik, jende artean liburuak trukatzeko ohitura badela ere ez da atzenu behar. Erran bezala, liburuekin konparatuz aldizkariak aisa gehiago saltzen dira. Hauen artean gehien saltzen direnak emakumei zuzendutakoak izaten dira, (kotilleoa, jostura, estetika... eta horrelakoak). Gero, bertze multzo nagusia kirol aldizkariena izaten da, batez ere futbolaz ari diren aldizkariak, eta azkenik, informazio orokorreko aldizkariak ere dextente saltzen dira. Horixe da, gutti gora behera, liburudenda batetik ikusten den panorama.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
  - Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Ríoja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



*Doike Euskara  
Taldea Baztanen  
sortu da*

**Mikel ALTZUART**  
Neurria: Zortziko Haundia

*Basaburu, Baztangoiza  
Arratsalde eta goiza  
Zato batekin zintzurra bustiz  
Tragoxka bakoitza  
Amatxik gaurko otoitza  
Noraino daie pendoitza  
Ele batetik eleketara  
Nola aspertu hitza.*

*Elizondo, Erberea  
Sasoin edo tenorea  
Kantoi batetik bertzerainoko  
Ur garbi sarea  
Alan dabil artaldea  
Ra-ra pasatu belea  
Arriztu batek mila urtez du  
Zabaldu elea.*

*Bai, ederki hala omen  
Aspaldidanik nabarmen  
Indar handiko zuhaitz ederra  
Duin dago hemen  
Orain zaindu behar zeren  
Itzali egin baino lehen  
Kimu berriek egin dezaten  
Euskeraz Baztanen.*

**Baztan, Malerreka  
eta Bortzirietako  
EAri**

Lerro hauen bidez, Baztan-Malerreka-Bortzirietako EAk ttipi-ttaparen 177. alean esandakoa erantzun nahi dut.

Hasteko, Bidasoa zonaldeko biztanle guztiok N-121-A (Mugairi-Behobia bidezatia) egokitzea lehen-tasunezko lana dela uste dugu, eta hau, arrazoi ekonomiko, turistiko eta industrialetan oinarriturik. N-121-Atik 8.500 ibilgailu baino gehiago ibiltzen direla ez dugu ahaztu behar, eta hauetarik anitz dira ibilgailu astunak.

Baina ez daukat hain garbi Baztan-Malerreka-Bortzirietako EArentzat benetan lehen-tasuna duenetz, gai hau eztabaidatzen ari zen udalbatzan Doneztebeko alkateak eta bere taldeak (EA) aurka botatu zuten eta. Ez al da ba kontraesan nabaria lan honen lehen-tasuna egunkarietan aldarrikatzea eta udalbatzan aurka bozkatzea? Ez al zarete zuek, zuen jarra zalantzarri eta kontraesankorra dela eta, esames eta mezu ozpinduak sortarazten ari zaretenak? Jendeak N-121-Aren lehen-tasuna aldarrikatzen duela erraten badu ere, komunikabideak irakurritz ge-

ro Nafarroa eta Europa Dantxarinateatik lotzeko nahia bertzerik ez da agertzen. Adibidez, Arlaban jaunak (Nafar Gobernuako ordezkaria) beraiantzat Lesaka-Behobia bidezatia une honetan lehen-tasunetik ez duela dio eta Enpresa Nacional de Autopistas enpresaren lehendakariak Belaten egiten ari diren lanak aprobetxatuz, Madrildik Iruñara bide berri bat egin eta, bide batez, Dantxarinateatik Frantziaraino luzatzearen alde agertu zen. Horrela Nafar iparraldeko industrigune inportantena bazterturik geratuko zen. Adierazpenok argi azaltzen dituzte zein diren gure agintarietarik dituzten asmoak, eta errepede-plan horretan Behobiarekiko loturari ez zaio lehen-tasunetik ematen. Gure industri, turismo, bizi-kalitatea, e.a. ez al zaizkie axola? Azken finean egiten dena ikusten da eta hitzak, politikak izan arren, hai-zeak eramaten ditu.

BIDASKA. LESAKA.  
ENA: 72.697.875



**Egin zaitetz DOIKE  
Euskara Taldearen  
bazkide!**

Baztan, Urdazubi eta

Zugarramurdi aldean sortu berri den taldea da. Gazte zein adinekoei zuzendua, euskararen normalizazioa du helburu nagusi. Herri gehientsuenetan (ttikiene-tan behinik behin) etxean, barride edo auzokoekin euskaraz mintzo bagara ere, ez diogu geure hizkuntzari merezi duen balio ematen. Aunitzetan sukaldeko xokoan edo adiskideekin musean aritzeko baizik ez dugu erabiltzen; halaberean, maiz aditu izanen dugu "Euskarak ez du deusteko balio, hobe erdara iketean, eskuarakin ezta Belatetik pasten ahal" moduko esaldiak.

Euskara gizarte eta kultur mailako hizkuntza bihurtu eginahalak egin behar ditugu eta hori, jakina, gure esku dago. Balleko Etxeko langileekin, medikuekin, maistru-maistrekinekin, e.a. ahalkerik gabe mintzatu behar genuke euskaraz.

Zeure baitan ere nahi horixe izanen bazenu, helburu horrekin sortu den DOIKE taldean parte har dezakezu eta bertako bazkide egin. Anima zaitetz!

DOIKE EUSKARA TALDEA



LESAKA



**BAZTAN  
ALTZARIAK  
zurgindegia**

121 errepede nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Nafarkaria 96-IV-19

«Bakoitzak jakinen du zer eskaini ahal duen euskararen presentzia gure inguruan egiazkoa izan dadin»  
**DOIKE, Baztanaldeko Euskara Taldea**  
 Nafarkaria 96-IV-19

nolako errealitatea dagoen ezagutu eta horren arabera plan bat zehaztu beharra dago».  
**Arantxa ZABALA**  
 Mendialdeko erizaintza arduraduna  
 Nafarkaria 96-IV-19

«Osasunbidean orain arte euskara ez da gehiegi kontutan hartu, ez dago inolako plangintzarik. Epe laburrera legeak dioena betetzeari ekin dio orain Zuzendaritzak. Halabaina, eskualde euskaldunear zer

«Dirulaguntzarik gabe ezinezkoa egiten zaigu Etxetik Plazara aurrera ateratzea. Dena den, irailerako proiektua indarberrituta itzuliko da»  
**Kepa de MATEO**  
 IKAKo irakaslea Leitzaan  
 Egunkaria 96-IV-2

## 11 GALDERA LABUR

◆ **Lana diskotekan edo estetizista bezala?**

❖ Biak gustokoak ditut; diskoteka negurako eta estetizista udarako.

◆ **Zure lanbideetatik zer da gehien gustatzen zaizuna?**

❖ Jendea ezagutu eta tratatzea.

◆ **Urteko sasoirik egokiena zure aretoarentzat?**

❖ Udaberria eta batez ere uda.

◆ **Emakumeek aunitz zaintzen dugu gure fisikoa?**

❖ Badago denetik bainan gehienak udan oroitzen dira.

◆ **Mutilik joaten da zure aretora?**

❖ Bai, orain arte bat izan dut bainan orain bertze batzuk animatu dira.

◆ **Oporretan mendira edo itsasoaldera?**

❖ Itsasoaldera gustatzen zait joatea.

◆ **Zein da hurrengo ilusioa?**

❖ Oporretara joatea.

◆ **Lagun aunitz edo gutti?**

❖ Ezagun aunitz eta lagun gutti bainan onak.

◆ **Defektu bat?**

❖ Beti bertzeetaz kezkatzea eta inbidia.

◆ **Rubioak edo beltzaranak?**

❖ Rubioak eta orrazten denbora aunitz pasatzen ez dutenak.

◆ **Ezkontza noizko?**

❖ Denbora ailegatzea jakinen da.



Linda IRAZOKI

Sunbillako estetizista eta Lapitxuriko arropa zaindaria

**LOZOTEGI-JAIZO**  
**LEKUZ ALDATU GARA**  
**ORAIN**

Altzate, 19 • 630786 • BERA

**SAROBE**  
**okindegia**

**SANDERS Pentsuak**  
 Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**BOTXO**  
**ostatua**

Tfnoa: 63 00 52  
 Zalain Auzoa, BERA

**PIKABEA**  
*pinturak*

Molinero drogerian galdetu

**Etxe barneko hezetan eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • BERA

**E D A R I A K**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
 Tel.- Fax: 948. 63 10 27



**Bera**

## 438 milioikoa izanen da udal aurrekontua

Inbertsiorik haundiena, 100 milioi, herriko zeharbidea moldatzen egingen da

KRISTINA BOAN

438.690.580 pezetako aurrekontua izanen du aurten Herriko Etxeak, inolako alegaziorik aurkezten ez bada behinpein.

Aurtengoan Udalak 215.884.579 pezeta erabiliko ditu inbertsioetan. Horien artean garrantzitsuena herriko zeharbidea moldatzea izanen da, horretarako 100 milioi gastatuko baitira. Zahar Etxearen lanetarako 71 milioi bideratu ditu Udalak, 9.300.000 pezeta Haurren Josteta-Parkea egokitzeko eta bortz milioi t'ardi Xantellerrekaren saneamendurako, bertzeak bertze. Soldatetan 60 milioitik goiti gastatuko dira eta ondasun ezberdinen erosketan ia 65 milioi pezeta.

Diru-sarrerei dago kienez, zerga eta tasen bidez 148 milioi baino gehiago sartuko dira Herriko Etxeko kuxtan. Nafarroako Go-



Inessa de Gaxen antzeslana ikusgai izanen da egunotan Kultur Etxean

bernuaren subentzioak berriz, 150.362.002 pezetakoak izanen dira.

### KULTUR EGITARAU

Pleno berean, guttira 6.260.092 pezetako aurrekontua izanen duen kultur egitaraua ezagutu zen. Bianako Printzea erakundeak 400.000 pezetako dirulaguntza emanen du. Urtean zehar gisa guztietako musika kon-

zertuak aditu ahal izanen dira. Exkixu, Hiru Truku, Jet In edo Free Spirit Jazz Band talde modernoekin batera, Barricarte tenorea, Donibane Lohitzuneko abesbatza edo bi organu kontzertu Goia eta Sarasateren eskutik entzungai izanen dira.

Dantzari Txiki Egun, Kultur Zikloa eta akuarelisten erakusketak daude programatuetak, bertzeak bertze.

### 'Inessa de Gaxen' antzeslana Kultur Etxean maiatzaren 1ean

Irungo BAI Teatro eta Bordeleko Théâtre des Tafurs antzerki konpainien 'Inessa de Gaxen' antzeslanaren entseiu orokorra burutuko da maiatzaren 1ean, arratseko 8etik aitzinera Kultur Etxean. Apirilaren 28tik aitzinera, ikuskizunaren lantaldea entsaiatzen ibiliko da

*ttipi-flash*

### ◆ Ibilgailuen zerga

Trakzio mekanikoa duten ibilgailuen 1996ko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik dago maiatzaren 15a bitarte.

### ◆ Bortzirietako euskaltegiak

aurkeztutako mozioa ahobatez onartu du udalak. 16 urtez goitikoan euskalduntzeari dago kion garrantzia ematea eskatzen zuen, bertzeak bertze, IKAre idatziak.

### ◆ Juan Carlos Olaetxea

margolari beratarren lanak ikusgai daude Elizondoko Kultur Etxean.

leku berean eta artistekin solasteko aukera ona izanen da, sarrera dohainik izanen baita, Herriko Etxeko Kultur Batzordearen laguntzari esker. Lami-xine BAT taldeak muntaiarako laguntza emanen du. 1611n Hondarribian sorgintzat hartu zuten emakume bati buruzko lana da.



**ZALAIN**  
JATEXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

**Boda eta banketeak ematen dira**

Zalain Auzoa

☎ 63 11 06

**BERA**

**J. RAMOS**

Zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut

☎ 631342 BERA • ☎ 637172 LESAKA

**AYLA**

**ARGAZKILARITZA**

- Estudioa
- Erreportaiak
- Ezkontzak
- Argazki materiala
- Fotokopiak
- Bideoa
- Markoak



Bixente Taberna  
Bidasoa karrika, 8  
**BERA** ☎ 630075

**Lesaka**

# San Anton urtegi inguruko lurra Irun eta Lesaka artean banatu dira

Nafarroako Gobernuak onartu du bi herrietako udalek adostutako eskualdatze hitzarmena

**AITOR AROZENA**

San Anton urtegi inguruan, Lesaka eta Irungo udalei dagokien lurren jabetza argitze-ko bi Herriko Etxeek izenpetu berri duten eskualdatze hitzarmena onartu du Nafarroako Gobernuak. Honenbertez, urtegi azpian gelditu diren 35.432 m<sup>2</sup> irundarrentzat izanen dira. Urtegi inguruan dauden bertze 347.000 m<sup>2</sup> ere gipuzkoarrentzat izanen dira.

Bertzalde, Lapuriturri eta Mandobide inguruan, orain arte Irungo udalarena zen 340.375 m<sup>2</sup>ko lur saila Lesakako Herriko Etxearentzat izanen da. Irungo udalarena den Basategia inguruko zuhaitzak Lesakako Herriko Etxeak probextuko ditu. Bere garaian Irunek erositako bertze 9.560 m<sup>2</sup> Lesakako herri-lurra izatera pasatuko dira, salerosketa hitzarmenengan ageri denez.



Eguzki elkarteak lehen aldiz antolatutako 'Rally-esprint' auto laisterketan 42 ibilgailuk parte hartu zuten. Agiñarako errepide bazterretan ere jende aunitz bildu zen ikuskizunaz gozatzeraz

Argazkia: Aitor

*ttipi-flash*

## Frontoia moldatzeko

lehiaketa zabaldu du Udalak. Proiektua Javier Sarobek idatzi du eta hasierako prezioa 12 milioi baino gehixeagokoa da.

## Bixente Agirre

iazko uztailan Zahar Etxetik desagertutako 67 urteko narbartearen gorpua apirilaren 5ean agertu zen. Itxuraz, aspalditik hilik zegoen.

## 5 milioi t'erdiko subentzioak banatuko ditu Herriko Etxeak kultur eta kirol ekitaldien antolaketarako

5.474.750 pezetako dirulaguntzak banatuko ditu aurren Herriko Etxeak kultur eta kirol ekitaldiak antolatu ahal izateko. Kirolera bideratuko diren 3 milioi pasatuetatik Beti Gaztek 1.372.500 pta. jasoko ditu (ekitaldi orokorrengeatik gehie-

na eta 122.500 pta xake txapelketa antolatzegatik). Eguzkik 962.500 pta Agiñarako igoera eta rallyesprinta antolatzegatik. Basurdek 85.000 pta Elizalderen omenezko probarako, Arkupek 230.000, Batzokik 304.750 (lasterketa eta

herri kiroletarako) eta San Ferminak 100.000 pezeta jasoko ditu.

Kultura arloan, abesbatzak 300.000 pta, txistulari bandak 335.000, kordeolariek 150.000 eta bandak 400.000 poltsikoratuko dituzte, musika taldeei dagokienez. Beti

Gaztek 95.000 pta eskuratuko ditu, ikastolak 480.000 pta (Piper Gorri, Haurraren Eguna, Euskal Jaia), eskolak 535.000 pta (errege kabalgata, Haurraren Eguna eta Dantzari Txiki) eta Arranak 120.000 (Zako-zahar eta zinea).



Lore eta landareak  
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
LESAKA

**BEREAU**

jatetxea • Hotela

Lesakako Bidegurutzean  
Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA



**EROSLE**

LESAKA

Kalitate-prezio arteko  
orekarik hobereana

**Frexkuena**  
zugandik  
hur bilago

Bittiria, 67 - © 637264

**Deñe**

LENTZERIA  
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA



**INAXIO JANARIDENDA**

Igandetan 9etatik 13etara irekia  
ASTERO eskeintza bereziak

Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA

**Etxalar**

# Telebista ez da ongi ikusten auzo batzuetan

Hori moldatzeko Gobernuari laguntza eskatu zaio

**PELLO APEZETXEA**

Antsolokueta eta Lurriztiederra auzoetan ez dela telebista ongi ikusten eta, Nafarroako Gobernuako teknikari bat etorri da gauzak nola dauden ikustera. Baina, honek erran duenez, herri guziak ETB ikusteko lanak Gobernuak egingen ditu, baina hiruzpalau urteren buruan. Momentuz gauza moldatzeko, Udalak paratuko du sotsaren zati bat. Bertze zatia auzotarrek paratzeko solastu egin beharko dela pentsatu du Udalak. Ez bailitzateke lehen aldia izanen, Urritzokieta auzoan afera gisa horretara moldatu zenez gero.

**Janaritegia Etxarlasan**

Janari prestatuak



Bertso eskolan gogotik ari dira gazteak lanean. Hasiera batean izena emandako baino gehiagok jarraitu dute. Iraupena ere luzatu egin dute

saltzeko lantegia jasoko du Berako Martikorenak Etxalarko Benta

ondoko lur zatian, errepidearen bertze aldean. 760 metro karratu-

ko zabalera duten hiru solairu izanen ditu, eta bertan janariak prestatzeko, jendeak ikusteko, eta saltzeko tokiak izanen dira. Udalak, baimena emateaz gain, lantegia interesgarria dela adierazi dio Gobernuari, bai lana sortzen duelako, bai turista nahiz inguruko herrientzako zerbitzu ona izan daitekeelako.

**Altxata elkartearen batzarra**

Apirilaren 28an, igandean, urteko Batzar Nagusia egingen du Altxata Elkarteak, Eskola Zaharretan, 12etan. Azken urtean egingandakoa gogoratuz gain, diru kontuak eta urte honetako asmoak azalduko dira. Batzorde


edo Juntaren zati bat berritu ere bai. A, eta hamaiketako ere izanen omen da.

**Errepidea konpontzeko eskaria**

Berriz ere Etxarlako bidegurutzetik hasi eta Lizarietarainoko zola berritzeko eskaria luzatu dio Udalak Gobernuari. Egiatan aski hondatua dago bide hori, eta hondamena egunetik egunera nabarmentzen ari da. Herritik Lizarietarakoan azken zolako zati haundiak desagertu direla ikusten ahal da. Hala ere, eskaria berriz ere errepikatatu beharko da, seguru aski, ea erranaren erranez noizbait aintzat hartzen duten.

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 637127  
**LESAKA**

**XATURETXEA**  
  
**JATETXEA**  
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA



**ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:**

- Daniel Hechter
- Caramelo
- Island
- Genfis
- Bonaventure
- Marithe François Girbaud
- Replay
- Diesel
- Guess
- Zone

**GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK**

Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 IRUN

**HERRIKO OSTATUA**  
**Jatetxea**  
*Lagun artean goxo-goxo egoteko leku egokia*  
© 635290  
**ETXALAR**

**Igantzi**

# Eskolako haurrek aste honetan eginen dituzte irratsaioak

Heldu den hilabetean eginen da herriko errolda berria



Eskolako 1., 2. eta 3. mailako haurrak Herriko Etxean hartu zituen alkateak, Aste Santu aintzinean. Bertan, udaleko funtzionamenduari buruzko galdera pila bat erantzun behar izan zuen

**OSKAR TXOPERENA**

Urtero ohi dutenez, aste honetan ari dira eskolako haurrak beren irratsaioak zabaltzen. Bertzetan bezala, Xorroxin irratikoek utzitako tresneria erabiltzen ari dira eta adi-

tu nahi izanez gero, irratia FMko 108an paratzea bertzerik ez duzue. Hagitz politikak dira entzuteko, gursoentzat batez ere.

**Errolda berria**

Heldu den hilabetean eginen da herriko

errolda edo padroi berria. Bortz urtetik behin eginen den lan honetarako bortz lagunek eman zuten izena eta, azkenean, Maite Zelaieta izanen da arduratuko dena. Hilabete bat iraunen du lanak, eta momentuz, Iruñean

zenbait ikastaro eginen ari baldin bada ere, abudo hasiko da etxeko bitxikeriak egiten.

**Igerilekuaren subasta**

Bertzalde, ateratzeko puntuan dago igerilekuaren aurtengo en-

kantea ere. Herriko Etxean prestatzen ari dira dagoeneko baldintzak eta deialdia eta ekainaren erdian dena prest egotea espero da aurtengo denboraldia hasteko. Hurrengo aleetan emanen ditugu berri zehatzagoak.



Apirilaren 11n egon ziren Iruñean gimnasia egiten dabilen herriko jubilatuek, zonaldeko bertze aunitzekin batera

Argazkiak: Oskar

**ORBELA**  
gimnasioa  
Squash • muskulazioa • sauna • hidromasai bainera  
© 637950 • LESAKA

**GRUPO ZURICH**  
ASEGURO OROKORRAK  
Itzea, 4 — BERA — © 63 07 63

**TXIRULA**  
Albistur, 39-K • © 627542 • LESAKA  
bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

**LANCHAS**  
• Parketak - Tarimak  
• Kutxillatzea eta bernizatzeak  
• Estaldura Orokorrak  
Bera © 630735  
Irun © (943) 622305

**Elizatzte**  
ERLOJUTEGI  
BITXITEGIA  
Nafarrentzat prezio bereziak  
Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

**ttipi-ttapa**  
Gida Komertziala 96  
Ez galdu sekulan begi bistatik.  
Den-dena eskeintzen dizu!

**F. MARITORENA**  
Baztan, Bortziriak eta Malerrekan lan egiten dugu  
Mendi eta jardinariek  
© 63 11 99 - BERA

**Arantza**

# Eskolako haurrek irratigintzan aritu dira Xorroxinen eskutik

Ekaitza elkarteak, bertzalde, pala txapelketa eta logotipo eta marrazki lehiaketa antolatu ditu egunotarako

GARBIÑE ETA ELIXABET

Bertze urtetan bezala eta Xorroxin irratitari esker apirilaren 17, 18 eta 19an irratigintzan aritzeko aukera izan zuten eskolako haurrek. Egutero bi orduko saioa egin zuten, 10,30etatik 12,30etara. Ikasleek prestatu eta zuzendutako irratsaio hauetan taldeka eta txandaka parte hartu zuten, talde bakoitza beraien irakaslearen laguntzarekin.

## UEMA Eguna

Maiatzaren 5ean Arabako Aramaio herrian burutuko den UEMA egunerako autobusa antolatu du Herriko Etxeak. Arantza, mankomunitate honetako kidea da.



Urte aunitz daramakite eskolako neska-mutikoak Xorroxin irratiko tresnekin euren emankizunak egiten

Artxiboa

## Pala txapelketa antolatu du Ekaitza elkarteak

Ekaitza elkarteak pala txapelketa antolatu du. Bikotekakajokatuko den txapelketa hau ligilla moduan ari-

tuko da eta apuntatzeko epea apirilaren 25a arte zabalik dago. Txapelketan parte hartzeko honako hauei

deitu behar zaie: Juanjo (634074) edo Imanol (634036). Nahiduen guziak parte hartzeko.

## Logotipo lehiaketa

Ekaitza elkarteak, bertzalde, bertze lehiaketa bat ere antolatu du, marrazki-logotipo lehiaketa, hain zuzen ere. Lehiaketa honetarako arau batzuk daude: logotiporako neurriak 8x6 zmkok dira eta Ekaitza elkarteak, neurri horien barnean egon behar du. Marrazkirako neurria berriz, DIN A4 da eta irudia logotipoaren berdina izan daiteke. Logotipo eta marrazki onenek 10.000na pezetako saria izanen dute eta lanak maiatzaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira. Interesatuak Belen (634055) edo Juanari (634137) telefonoetara deitu.



Irungo errepeidea - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardadao' Mazioa  
Zuhar antzekoak Txanpetan

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK



**ALBERGIA  
JATETXEA**

© 634179  
ARANTZA



© 631076 • BERA

**OKANE**

**HARATEGIA • URDAITEGIA**

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



**BLANCO ANAIK, S.L.**

MARMOL eta GRANITOKAK

Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerria

BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052  
IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390

**GANIX  
Tailerrak**

IBILGAILUEN MEKANIKA  
ETA ELEKTRIZITATEA  
FIAT Zerbitzua

Iturlandeta 9 • © 630669 • BERA

**ttipi-ttapa**

6.100 harpidedun  
21.000 irakurle

**Sunbilla**

## Bizikleta-poteoa burutuko da herrian barna maiatzaren 4ean

Bortz ostatuko zirkuitoa bortz aldiz bete beharko da *Hontan Bai* taldeak antolatutako proban

IXABEL ETA JOSUNE

'Hontan bai' dira poteatzeko moda berria paratu duten antolatzaileak. Herrian barna bizikletaz poteatzeko modu berria maiatzaren 4ean burutuko da arratsaldeko 4etatik aitzinera *Bizipote* izenburupean.

Kanpinetik aterata Herriko Ostatua, Fonda, Bustitz eta elkarte-ko ostatuen barna eginen dute itzulia, proban bortz buelta emanen direlarik. Buelta bakoitzean pintxo bana hartuko dute, ostatu ezberdinetan. Parte hartzeko 18 urte beteak izan behar dira eta bizikletek jabearen izena eramanen dute. Apuntatzerakoan, partehartzaileek hartzen duten ardo mota adie-



Joan den urtean piszina lanean aritu zen hirukotea

Arg.: Ixabel

### Igerilekuko zerbitzurako proposamenak

Uda honetan piszinen mantenimendua, garbiketa eta ostatuaz arduratu nahi duenak maiatzaren 16ko eguerdia baino lehen aurkeztu beharko du bere proposamena Herriko Etxean. Udalak 600.000 pezeta aurrekontua du zerbitzu horretarako, beraz, hori izanen da lehiaketaren oinarria. Xehetasun gehiago Herriko Etxean.

razi beharko dute. Antolatzaileek argitu dutenez, ostatu bakoitzean gehienez 15 minutuko egonaldia egin daiteke eta ibilbidea eta ordutegia errespeta beharko dira.

### Baztan-Bidasoako 48 orduko futbol-sala txapelketa

Maiatzaren 11 eta 12an Doneztebe eta Sunbillako frontoietan jokatuko da Baztan Bidasoako futbol-sala txapelketa 48 ordutan.

Talde bakoitzak 5.000 pezeta ordaindu beharko ditu iazko txapelketan parte hartu bazuen eta berria bada, berriz, 7.000. Izen

ematea maiatzaren 1a bitarte egiten ahal da. Informazioa 451664 eta 450404 (Mikel). Txapelketa Erreka elkarteak antolatu du.



### SANTAMARIA Jatetxea

Obrak irauten duten bitartean sarrera gibelego aldetik. Asteburuetan itxita dugu

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

### BELARRA Jatetxea

Bertako jakietan espezializatuak

Amezti 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE



### TELLETXEA MOBLEAK

#### Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Doneztebe

# Arkupeak elkarteak zenbait bidai antolatu ditu maiatza eta ekainean

Maiatzaren 6tik 10era ekitaldiz betetako Euskararen Astea ospatuko da eskolan

**TXEMA ALDABE**

Maiatzaren 16an Leireko monastegira joanen dira sei bat autobus Arkupeak elkarteak antolatuturik. Goizeko 11etan meza eta monastegiari bisitaldia. Ondoren, 1etan Xabiererra abiatuko dira han bazkaltzeko. Arratsaldean gehienak itzuliko badira ere, bertze zenbaitzuk Isaba aldera abiatuko dira eta lau egun emanen dituzte han. Egunero, goizez mendira ateraldiak eta arratsaldean atsedena. Bidai hauek tarako izena emateko eguna maiatzaren 1a da, goizeko 11etatik 1etara, Doneztebeko bulegoan (tel. 450878).

Hurrengo bidaia Benidorm-era izanen da maiatzaren 20tik ekainaren 3ra bitartean, dagoeneko 112 lagunek izena emana dute. Ekainaren 6an berri, Erriberara joanen dira egun bat pasatzera. Izena ematea maiatzaren 7tik 14ra.



Edozein azientendako pentsuak eta bertzelako osagarriak salduko dituen denda zabaldu zen martxoaren 31n Aparanen. Alkatea, Nekazaritza kontseilaria, Alli eta inguruko 100 lagun izan ziren bertan.

## Euskararen Astea ospatuko da Doneztebeko eskolan

Maiatzaren 6tik 10era Euskararen Astea ospatuko da Doneztebeko eskolan.

Aste honetarako ekitaldi saila prestatu dute, errate baterako, Xorroxinen irratsaioak, ortzegunean zine emanaldiak, ortziralean Takolo, Pirrutz eta

Porrotx pailazoen ikuskizuna arratsaldeko 3,30etan. Egun horietan zehar aldizkariak prestatuko dituzte eta haur hezkuntzako enmarrazki erakusketa burutuko da. Honetaz gain, zikloka, jokoak, ginkanak etabar... izanen dituzte.

## Herriko zeharbidea moldatzen uste baino 28 milioi gehiago

Herriko zeharbidea moldatzea eta espaloiak egiteko lanak 113.894.025 pezetatan eman zitzaion 'Asfaltos de Biurrun' enpresari, baina azkenean 142.446.941 pezeta ordaindu beharko ditu Herriko Etxeak, lanetan zenbait aldaketa

## 60 milioi itzuli behar ditu udalak mailegutuan

60.333.336 pezeta itzuli behar dituzte Herriko Etxeak mailegu edo prestamoak eman dizkieten erakunde ezberdinei. Mailegu horiek erreka bideratzeko lanetarako, kamioien apar-kamendurako lurra erosi eta hau zolaberritzeko eta bertze zenbait inbertsio finantzatzeko eskatu zituen. Bertzalde, udalaren zorpetzea %11 ingurukoa da, gaur egun.

egin behar izan direlako. Zinegotzi guzuen onartu zuten azken prezioa, Alfredo Zugarramurdik ezik. Honen ustez lan guztiak hasierako prezioetik ikaragarri garestitzeko joera dute, berez. Alkateak hori ez dela horrela erantzun zion.

## JUAN J. PIKABEA

ARROPA KONFEKZIOAK  
GIZONEZKOEN DAKO  
JOSTUNGINTZA

Amezti z/g, Tfnoa: 45 16 70  
DONEZTEBE

Aukera haundia  
galtza bakerotan

- BONAVENTURE (sei modelo ezberdin)
- Pilotariendako galtza xuriak, **ASTORE** markakoak.

HERRIKO OSTATO

**ZUBIETA**  
© 948-451771

**Malerreka**


# Donezteben dauden Etxebizitza Zainduak akituak daude

Oraingoz sei lagun apuntatu dira bertara joateko

TXEMA ALDABE

Doneztebeko Etxebizitza Zaindu-etako obra guzia egin dago, azken ukituak falta dira bakarrik eta ekaina aldera inauguratzeko asmoa dute.

Pisu hauetan bizi ahal izateko, bertako funtzionamendua eta bete beharreko baldintzak azaltzeko, Malerrekako herri guzietan solasaldiak eman dira eta oraingoz sei lagunek (lau gizasemek eta senar-emazte batek) eman dute izena. Dena den, oraindik izena ematen ahal da eta berriz ere informazioa zabaldu eta karpaina berri bat egin gogo da. Honen berri jakin nahi duenak Mankomunitateko bulegora deitzea eta Begoñarekin solastea aski du (451746 telefonoa). Oraindik jende kopuru txikia bada ere, martxan hasiko da dagoenarekin.



Ezkurrako uhaldean, Juantxo Merchanek kilo t'erdiko amorrain ederra harrapatu zuen. Erreka bazterretan jende aunitz ikusten da egunotan arrantzam, eguraldi goxoak animatuta.

Argazkia: TXEMA

## Liburuaren Eguna

Liburuaren Eguna dela eta apirilaren 22tik 26ra erakusleihu apainketa egingen da Doneztebeko zenbait dendetan. Apirilaren 22an, arratsaldeko 3,30etan zinean eskolako haurrentako euskal mitologiari buruzko ipuinak. 24an, arratsaldeko 5etan ipuin maratoia leku berean. 25ean, Doneztebeko liburuzainak eta Ester Fernandezek 'Burgeten ipuin emanaldi bat' eskainiko diete haurrei.

## Euskararendako dirulaguntzak banatu ditu Mankomunitateak

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateak egindako azkeneko bileran onartu ziren euskararen alde lanean ari diren inguruko talde eta komunikabideei eman beharreko dirulaguntzak.

Horretarako talde bakoitzak aurkeztu zituen bere aurrekontuak

eta minimoki funtzionatzen jarraitzeko eta zorrak kitatzeko behar zuen laguntza.

Hona hemen eskatutakoa: Xorroxin irratia 550.000 pta; TTIPI-TTAPAK 2.405.728 pta; Langarrak 1.605.000 pta eta Malerrekako IKAK 1.998.680 pta. Denen artean banatze-

ko 2.677.500 pezeta onartu zen eta banaketa honela egin zen: Xorroxinek 550.000 pta. jasoko ditu, hau da, eskatutako guzia, TTIPI-TTAPAK milioi bat pezeta eta Langarrak eta IKAK, kopuru osoa iristeko falta zena erdibanatu dute, bakoitzak 563.750 pta.

Aipatu behar da ere, Euskara Batzordeak deiturik Malerrekako alkate eta mankomunitateko partaideekin bilera egin zela euskararen egoeraz eta talde bakoitzak egiten duen lanaz eztabaidatzeko. Bilerara Doneztebe eta Sunbillako ordezkariak ez ziren azaldu.

Ez galdu sekulan begi bistatik. Den-dena eskeintzen dizu!



**ttipi-ttapa**  
Gida Komertziala  
**96**



Elizagibela © 451849

Igandetan goizeko 6etan idekia bokadilloak... ematen ditugu

- ✓ Pintxoak
- ✓ Bokatak
- ✓ Hanburgesak
- ✓ Sandwichak
- ✓ Patata bixiak
- ✓ Patata presituak

*Giro eta musika onaz gozatzeko*

## muñeca de Trapo



Luis Mariano, 35  
Tel.: (943) 62 52 55



# T Hiruhilabeteko xokoa


Leitza eta  
Goizuetako Euskara  
Batzordeen  
Argitalpena

Argitaratzailea: Leitza eta Goizuetako Euskara Batzordea. Tfnoak: 610636 (Leitza) eta 504400 (Lekunberri)  
Maketazioa eta Banaketa: ttipi-ttapa

## UEMAren Eguna. 1996. Aramaio



Azkeneko urteotan egin den moduan, aurtengo Udalak Euskararen eguna ospatuko da. Aurtengoa Araban izanen da, Aramaion, hau izan baita herrialde honetatik Udalak Euskararen Mankomunitatean (UEMA) sartu den lehendabiziko herria. Hogeitazazpi dira UEMA sartuta dauden herriak, Leitza eta Goizueta tartean direla. Euskal Herrian sekulan egin ez den zerbait lortzeko batu dituzte indarrak: administrazioan euskaraz funtzionatzea. Proiektu aintzindaria da, beraz, gure Udalek abian jarri dutena eta herritarren laguntza ere ezinbestekoa izanen da.



### Egitarau zabala prestatu da

UEMAren egunaren bitartez, Aramaio herriari proiektu hau azaltzeaz gainera, Euskal Herri osoari erakutsi nahi zaio euskara gure herriotan normaltasun osoz erabiltzeko egiten ari den ahalegina. Ez soilik administrazioan, baita kalean, etxean, eskolan, komertzioetan... Egun honetarako UEMAk

prestatu duen egitaraua hau da:

- 11:30etan** kalejira txaranga eta trikilariekin.
- 11:30etan** udaletxean, euskararen aldeko ekitaldi instituzionala bertako agintari, UEMAko partaide, instituzio publiko eta herri mugimenduen ordezkariekin.
- 12:30etan** kale antzerkia,

- herri kirolak, dantzak.
- 14:30etan** bazkaria frontoian.
- 16:30etan** pailazoak: Takolo, Pirrux eta Porrotx herriko plazan.
- 18:00etan** erromeria: Maixa eta Itziar herriko plazan.

### Autobusa antolatu du Euskara batzordeak

Leitzan egin zen UEMAren egunaz aparte, ez dugu herriotan ohitura haundirik izan festa honetan parte hartzeko. Horregatik aurtengo berezia egin nahi dizuegu Aramaioara joateko. Euskara batzordeak autobusa antolatu du eta, beraz, animatzea besterik ez zaigu gelditzen, egun polita pasatzeko aukera ederra baita.

## Irratiaren bidez euskara landuz

**B**a al dakizue "Gose-belarra" zer den? eta ongi ala gaizki esana da g o e n : "Zer, joaten gara beste taberna batera?". Ba al da desberdintasunik jokatu, jostatu eta jolasturen artean? Zein da egokiena, Iruñean dago ala Iruñean da? Zergaitik ari gara hiketari hitzegiteko ohitura galitzen? Zer eta zertarako da euskara batua? Noiz erabili eta noiz ez?

Azken hilabete hauetan honelako bitxikeri asko argitu nahi izan dugu, euskaltegiak, astelehenero Karrape irratiaren egiten zuen saioan. Denetara 18 saio, ordu dexente euska-

raren inguruan. Orain, iraila bitartean balorazioak egiteko garaia ailegatu zaigu. Guretzat erabat berria den esperientzia honetatik gauza asko ikasi dugula azpimarratu beharko genuke:

a) Kontutan hartzekoa da euskararen inguruan kezka eta jakinmin handia dagoela eta honelako saioretan hori nabaritzen da; gero eta okerrago hitz egiten da, erdararen eragina egunetik egunera handiagoa da eta honen ondorioz, gure hizkuntzaren kalitatea, gazteen artean gehienbat, eskas xamarra dela esan dezakegu.

b) Euskaldunak, beti bezala, "kanpokoa urrezkoa bertakoa lurrezkoa" eta

euskararekin gauza bera gertatzen ari ote den pentsatzen dugu. Izugarri aberatsa da gure gurasoek erabiltzen duten euskara eta penagarria litzateke aberastasun hori galtzea, honen inguruan lan handia egin behar da eta euskararen transmisioa beste modu batez landu beharra dago.

c) Alderantziz ere gertatzen da, gizartea etengabe berritzen ari da eta hizkuntzak egoera berrietara moldatu beharra du, egoitu eta honetan ere denok lagundu dezakegu.

Laburpen gisa, irrati oso bitarteko polita izan daiteke gure hizkuntza aberastu, hobetu eta egokitzeko. Denoi dagokigu euskarak



duen egoera zailetik ateratzeko ahal dugun guzia jartzeari. Euskara idatzi, irakurri eta hitz egin daitekeen hizkuntza da, horretarako euskaltegia toki aproposa da eta irrati euskaltegian egiten den lanaren osagarria izan daiteke. Irailetik aurrera euskaltegian aritzeko animatu eta eginen diren irratsaio berriaren entzule ere espero zaitugu.

*Leitzako Euskaltegia*

## Aresok, bikain

**Z**orionak, oso ongi tiatu duzuelako eta zuen balioa erakutsi diguzuelako. Atzen gelditu dira zuen sakrifizioak, nekeak eta zenbait tristurak, orain ikusten dira fruituak eta denak arrosentitu behar zarete oso onak zaretelako.

Aresoko sokatira taldeak hiru urte daramazki entrenatzen eta denbora gutxin maila altu bat lortu du bere ilusioari esker. Ezin ditugu ahaztu tarten sartu dituzten ordu guztiak. Txapelketako garaien egunero biltzen dira sokan edo korrika egitea joateko. Gainera jarraitu behar dituzten barualdiak ez dira makalak. Beraiek esaten

dutenez preparazio fisikoa oso inportantea da baino bere artean bizi duten giro alai oso garrantzitsue da aurrera jarraitzeko. Daukaten entrenadorearekin, Iosu Etxezarreta, ezin dira txorakerietan ibili, dirudienez taldean sartu nahi dutenek ideiak argi eduki behar dituzte, lana erruz egiteko eta dauzkaten indarrak sokan uzteko. Iosuk munduko txapelketan parte hartu du eta daukan esperientziarekin, aresoarrak badute non ikasi. Aurten Nafarroako txapelketan oso ongi aritu dira eta 640ko txapela lortu dute, gero sailkapen nagusian bigarrenak gelditu dira. Beraiek irabazi egin nahi zuten, baina orain arte ezin izan dute Beti Gazte-



ko mutilekin. Iritsiko da eguna. Dena den kirol honetan dena ez da negarra, badituzte bere gustoko momentuak. Ahal izan dutenean antolatu dituzte afariak, noski eta merezi ere bai.

Zorionak Mikel Arraigo, Xabier Arraras, Jexus Artola, Txomin Artola, Mikel Baraibar, Patxi Baraibar,

Txomin Belaunzaran, Argoitz Hernandorena, Juan Mari Izeta, Iñaki Nazabal, Joxe Martin Onsalo, Joxe Otermin, Javier Otermin, Javier Perurena, Iñigo Sanz eta talde honen sortzaile eta txapeldun bihurtzaile den Iosu Etxezarretari.

*Eli Belaunzaran*

## Bitxikeriak

### Leitzeko Udaletxeko erdarazko testu zaharretan topatutako euskal hitzak

**L**an txiki bat egin behar genuela eta, Leitzako Udaletxeko artxiboko paper zaharrerri beidetu bat ematera joan ginen, eta hara non, ohartu ginen, denak espainolez idatzita egon arren, euskerazko hitzak noiznahi sartzen zituztela, batik bat gauzen izenez ari zirenean.

Bestalde, euskerari buruzko zuzeneko erreferentziak eskasak dira, baina aurkitu dituguneri kutsu mespretxagarriz idatzitakoak direla nabaritu diegu. Ondoren heldu diren hitz eta espresioak Leitzako Udaletxeko artxiboan ageri direnetako batzuk dira, ondoan noiz idatzi ziren eta bere esanahia adieraziko ditugularik.



- «**adaçu, adaçu, adaçu** que quiere decir cornudo, cornudo, cornudo» (1574): Bi senar-emazte bikote aldi hartan, bikotea aldatuta omen zebiltzan eta emazte batek bestearen senarrari esan omen zizkion hitz hoiek, alegia "adarzua" zela.
- «**uztarris**» (1579): Uztarriak
- «**chiminia**» (1579): Tximinia.
- «**catanartea**» (1579):
- «**assia**» (1604): Meari burnia kendu eta gelditzen den "harri" puska, eskoria.
- «**maldilcos**» (1608): Andreek buruan erabiltzen zuten zapia.
- «**bururcos**» (1619): Burniolako zur bat.
- «**labertarria**» (1619): Sutegiko harriren bat.
- «**boga**» (1619): Burniolatan, gabia eusteko zen burnizko pieza.
- «les ley ha alta e inteligible voz la dicha sentencia arbitraria declarandoles en **bascuenze** todo lo contenido en ella» (1650): Udalbatzarraren ondoren, aktak izenpetu baino lehen, eskribanoak euskeraz adierazi omen zien gertatutakoa.
- «no pueda cortar roble alguno ni de los que se allaren en el suelo hacer tablas **que en idioma bulgar bascongado llaman chantelac**» (1715): ikatza egiteko prestaturiko egurra edo ikatzez betetako gurdiairen gainean, kargari eusteko sokaz lotuta jartzen den aga.
- «cortar elechos asi para **irachioles** como para abono» (1719): Istorra berdea zegoela, azindek jateko ebakitzen zena, itxiola.
- «tres haias muy mal guiadas y otra por pie que llaman **tartaca**» (1728): adabegi askoko zuhaitza, altuera gutxi eta adar askokoa, zartaka.
- «**zicela**» (1748): harginek harriari puskak kentzeko erabiltzen duten tresna, zizela.
- «los **ondauguillos**» (1738) errotako harriak maneiatzeko tresna.
- «**aizanca**» (1740):
- «carbon que llaman de **galarra**» (1741): mendian sortzen den egur iharraz egindako ikatza.
- «mojones del medio que llaman **fieles**» (1741) larre edo soroen erdian jartzen zen harria, bertatik lau aldeetara, distantzia berdiner, mugarriak jartzen zituzten.
- «**arragoa**» (1742): burnioletako labeetan, metal urtua jasotzeko erabiltzen zen ontzia.
- «las **goiaras**» (1764): goiaga edo goiabe, teilatuko gapirio nagusia.
- «las **egazlattas**» (1764): hegatzeko lata.
- «las **pezurgoiaras**» (1764): erretena duen gapirioa.
- «**gibel maça**» (1764): atzeko gabia edo maza.
- «los **zorrotones**» (1764): zorroten, teilatutik goitik behera doan tubo.
- «los **zorrones**» (1764): zorro, txorro.
- «**meneral o lentegua**» (1766): meazuloa.



## Heriotzaren inguruko usadio zaharrak Goizuetan

XALBA INDAKOETXEA

Gizakia gizaki denetik zerbait baldin bada errespeta, beldurra, siniskeriak, etab... sortu dizkiguna, hori heriotza da. Honen inguruan herri bakoitzak bere tradizio eta ohiturak izan ditu, nahiz eta gaur egun asko galduz joan diren. Gure herrian orain dela urte mordoxka izan genituen ohitura batzuk ikusiko ditugu hemen.

Norbait gaixotu eta larri jartzen zenean sendagileari eta apaizari deitzen zitzairen eta abisuarekin joan zenak apaizari laguntzen zion kandela eta txintxerri bat eramanez. Sakramentuak zeramatzan apaizari herritar askok segitzen

zion, azkenetan zegoenaren etxeraino.

### Zakurren ahuria: heriotzaren seinale

Etxeko zakurrak ahurika hasten baziren, gaixo zegoena hil zela esan nahi zuen. Hau gertatzen zenean etxeko ispiluak zapi batekin estaltzen ziren.

Familikoei abisatzeaz gain, etxeko erleei ere ematen zitzairen heriotzaren berri, hildakoaren jantzi bat zutoi batean zintzilikatuz eultzen ondoan eta hau esanez: "Ave María Purísima. Hil zaigu X, hemen uzten dizuet haren soineko puska bat; lan egin ezazue argizaria egiteko". Hau egin eta erleek argizari gehiago egiten omen zuten

etxekoek kandelak egiteko eta, horrela, hildakoaren alde Elizan paratzeko. Gainera, luto gisa, eultzak estali egiten ziren.

### Lastaia erre

Hildakoaren oheko lastaia erre egiten zen gaitzaren eta heriotzaren kutsu guztiak kentzeko. Lastaia lastoz eta txurikinaz egindako jergoia izaten zen. Baserrikoek bideko lehengo gurutzean erretzen zuten eta kalekoek berriz, baratzan.

Muellezko jergoia sartu zirenean galdu zen ohitura hau. Entierroak lehen goizetik egiten ziren eta honela joaten zen:

Aurrean monagilo bat Elizako gurutzarekin eta

honen bazterretan beste bi monagilo zutargiekin. Ondoren gizonezkoak binaka lerroan, atzetik lau gizonezko hilkutxa eramaten eta honen alboetan sei mutil zuziekin, gero apaiza, familikoak eta azkena, nola ez, emakumezkoak.

### Progua: hildakoaren sendia zorpertzeko bidea

Elizkizunak bukatzen zirenean, hildakoaren etxean progua izaten zen, hiletara joandako jendeari jatekoa eskaintzen zitzaion: ogia, gazta, galletak, urdaiazpikoa, ardoa, kafea... Eseri gabe hartzen zuten mahaitik. Gizonak salan biltzen ziren eta emakumeak gela batean edo sukaldean. Hasi aurretik, familiako batek hasita, Aita Gurea errezatzen zuten.

Denborarekin ohitura hau herriko tabernatan egitera pasa zen eta gero, pixkanaka, galdu egin da.

Egia esan, galtzeko hobe zen. Etzen nahiko desgrazia etxeko bat hila izatea, gainera jendearentzat krixton otordua prestatu behar. Famili pobre asko zorpean sartzen zen eta tri-pazain askok otordu eder-rrak egin zituen mahaiko guztiak bekaizkerian irentsiz.

Emakumezkoak alargun gelditzen zirenean bizi gutzitarako lutoa gordetzen zuten, erropa beltzak edo ilunak jantziz.

Aipatzekoa da mende honen erdira arte hilerrian bazegoela lur zati bat bat-taiatu gabekoak lurperatzeko. Normalean hemen lurperatzen zituztenak hilik jaiotakoak izaten ziren, ez zitzairen inolako elizkizunik egiten eta ez omen ziren ez zerura ez infernura joaten, linbora baizik.

**Juanito Mariezkurrena enpresaria hil da**

Juanito Mariezkurrena Ezkurra, 67 urteko enpresa gizon ezaguna, apirilaren 7an hil zen, 67 urte zituela.

Eratsungo Saskille-

nea etxean jaioa, mendiko lanetan hasi zen eta hiltzerakoan, 'Construcciones Mariezkurrena' enpresako nagusia zen. Enpresa honek 120 lagun en-

plegatzen ditu (eskualdeko bigarrena Lesakako lantegiaren ondotik). Berriki, Leitzako 'Azpiroz y Saralegi' rekin batera Euskal Herriak eta Akitaniako

bertze 9 eraikuntza enpreskin elkartua zen, Gedi taldea osatuz. Inguruotan, herri kirol eta pilotarekiko zale-tasunagatik ere ezaguna zen.



**Hainbat bisitari izan dira Zubietan Aste Santuan**


AINHOA MUTUBERRIA

Udaberria noizpaitere ailegatu zen. Esaten den bezala, udaberrian daukagu baina hori gehiegi aurreratzea da. Herriko egoera betikoa da, Aste Santuan pixko bat aldatu bazen ere. Orduan bai, gauzak ezberdinak ziren. Barkazioak zirela eta jendea pilaka etorri zen, adin guztietakoak gainera.

**70 laguneko taldea**

Hiruretan hogeita hamar pertsonaz osatutako talde bat agertu zen eta estalpea kanpamendu bihurtuz, hantxe pasatu zuten egun pare bat. Arazoa sortu zen noski, ostatuan soinua egiten zela eta lo ezin eginez ibiltzen zirenean. Alde batetik aurpegi haundia izan behar da keatzeko borondate onarekin jokatzenean, baina bestetik kontutan hartu behar da umetxoak ere bazirela. Dena den, hori pasatu da eta betikora bueltatu gara, herrietako jaiak berehala hasiko dira. Hortaz, azken aldiko asteburuetan genituen ohiturak aldatzeko aukera izanen dugu. Hori gozamen!

ERRENTA AITORPENA 1995



**AHOLKULARITZA PERTSONALA BEHAR BADUZU ZATOZ CAJA RURAL-ERA**

Aitorpena egiterakoan zerbitzu eroso, bizkor eta eraginkorra aukera ezazu. Eraberean, zure Aitorpenean pertsonalki aholkatuko dizun zerbitzua aukeratu. Caja Ruralen zuri laguntzeko prest dagoen aditu taldea zain daukazu. Ez zalantza gehiagorik izan. Aurten zure Aitorpena Caja Rural de Navarra tramita ezazu.

AITORPENA  
ERRAZTEKO  
**100** BULEGO  
BAINO GEHIAGO  
DITUGU NAFARROA  
OSOAN ZEHAR



CAJA RURAL DE NAVARRA

Goizueta

## Ataitz taldearen emanaldia maiatzaren 5ean elizan

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren aplikazioaz zalantzak

ESTEBAN AROZENA

Aurtengo 'Arte eta Kultura' kanpainaren barreneko ekintza interesgarria maiatzaren 5ean, igandea, Ataitz taldeak eskainiko duena da, inolako zalantzarik gabe.

Lau musika irakasleek osatzen dute taldea, hauen artean herriko musika eskolan solfeo eta txistua erakusten duen Xabier Irigoien dagoelarik. Funtsean Ataitz ohizko txistu banda bat izan arren, beraien erreperitorioa bestelako tresnentzako lanez ere hornitua dago, akordeoia, kitarra, flauta eta baxua esate baterako. Eguerdiko mezondoren elizan burutuko den



Ataitz taldeak maila haundiko txistu doinuak eskainiko ditu

kontzertu honek ordubeteko iraupena izango du, gutxi gora behera.

### Zalantzak DBHren aplikazioan

TTIPI-TTAPAREN azken aurreko alean ematen genuen informa-

zioaz, DBH edo ESOren aplikazioaz, alegia, nolabaiteko berriak etorri dira Nafarroako Gobernutik. Angel Urtasun, Hezkuntza sailleko zuzendari orokorrrak udalari jakinarazi dioenez, Gipuzkoan

ikasi nahi dutenei ez omen zaie garraiorik jarriko, beka edo dirulaguntzaren bat eskuratze aukera edukiko baldin badute ere. Gobernuak ez du zehaztu oraingoz laguntza honen kopurua.

Lerro hauek idazterakoan oraindik gurasoen iritziz ofizialaren berri ez izan arren, lehen inpresioa oso ona izan ez dela aurreratu genezake.

### Oinarritzko Gizarte Zerbitzua

Gure zonaldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzua aurtengo aurrekontua 13 milioi t'erdikoa da. Dirutza honetatik 8,5 milioi Nafarroako Gobernuak ordaintzen du; 168.000 pezeta etxeko zerbitzua jasotzen dutenek, eta 5 milioi Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako udalek. Kopuru honetatik eta biztanlegoaren arabera, 1.085.000 pta ordaintzea dagokio gure herriri.

Areso

## Aste Santuan bisitari asko izan dira

Hogei emakume bildu ziren larunbateko afarian

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Oporraldia pasatu da dagoeneko eta denok gure eginkizunetara bueltatu gara. Aste Santuan bisitari de-xente izan ditugu. Iruñeko haur koadrila batek bere monitorean hiru egun pasatu dute. Herriko plaza bete-a egon da egun guztietan, futbol eta pala partiduak jokatzeko. Betiko elizkizunak, ohien bezala. Jende ge-



hietak ostiral eta igandean parte hartu zuten. Larunbat Santuan ema-

kumeen afaria, ohiturari segituz, 20 lagun bildu ziren aurt-

Txingurri soinujolearekin dantzaldia eta goizaldean kalejira.

Larunbat Santuko meza ondoren ohiko hamaiketa koa banatu zen elizatarian

Argazkia: Juana Mari

ttipi-flash

- ❖ **Auzolanetan** herriko mendietan 500 haritz amerikar eta 900 izei landatu dituzte.
- ❖ **Udal errolda** Maiatzean hasiko da udal errolda egiten etxez etxe.
- ❖ **Udaberriko Bira** Maiatzaren 5ean, eguerdiko 12etan elizan San Fermin korralaren bisita izanen dugu.

Leitza

# Oscar Astibia intsumitua Iruñeako espetxean giltzaperatu dute

Juan Mari Beloki atxilotua izan zen

JOSEBA AZPIROZ

Hilaren 16an, Oscar beste lagun batzuekin batera Nafarroako Audientziaren aurrean kateatu zen protesta moduan, Kode Penal berria aplikatu ezkerro inhabilitatu zezakete-elako urte askotarako. Inhabilitatuz gero eskubide asko galtzen dira: ezin da bekarik edo dirulaguntzarik eskatu, administrazio publikoentzat lanik egin, adibidez. Injustizi honen aurka azalduz, bere kondena ez berrikusteko eskatu zuen ekintza horren bitartez eta epaileak bere eskaera onartu zuenez, gaueko 12ak baino lehen espetxera sartu behar zuen bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra betetzen hasteko.

Ekintza honen inguruan Juan Mari Belokiren atxiloketa gertatu zen. Lau gazte komisarira eraman zituzten karnetarik ez zeramatelako eta gaine-



Jose Mari Razkin eta Antonia Rodriguezek urrezko eztaiak ospatu zituzten hilbeltzaren 30ean. Umoretsu ospatu ere. Zorionak eta segi bizkor urte askoz

rakoak beraiekin joan ziren. Polizien teniente batek "hemen ez dugu inor jaten" esan omen zuen eta Juan Marik berriz Zabaltza eta Arregiren kasuak gogora ekarri omen zizkion. Doinu lasai batean eman zen eztaibada bukatu eta ordu erdira atxilotu zuten autoritateari irain larriak egiteagatik. Komisarian ordu batzuk egin ondoren epai-

learen aurrean deklaratu eta libre utzi zuten.

## Aupa Aurrera!

Aurrera preferentzia igotzeko promozioa jokatzeko tope tope ari da. Hiru partidutatik 2 irabazi ditu (Fiterokoa jokatzekoa da) eta hemendik aurrekoak ere hala nahi. Animazio falta ez dezatela izan behintzat. Datorren igandean Setan Larbardon Injertoren aurka.

## Haize parkeei buruzko bilera

Parke eolikoak edo haize parkeak jarriko diren herrietako Udal eta kontzejuetako ordezkariak bildu ziren apirilaren 2an.

Bileran izendatu ziren ordezkariak produkzioaren %5a herrirentzat gelditzeko lehen gestioak eginak dituzte dagoeneko, hori baita udalen asmo nagusia.

ttipi-flash

## Herri lurretako bazka

239 behor, 284 behi eta 7.429 ardi dira aurten lur komunalen bazkatuko direnak, azkeneko aitortpenaren arauera.

## Plazako pilota txapelketan

parte hartzeko, Plaza Autoeskolan eman behar da izena hilaren 28a baino lehen.

## Herri crossa

Datorren igandean ospatuko da Aurrera kirol elkarteak urtero antolatzen duen crossa. Zirkuitoak hamar kilometro ditu eta hiru irteera emanen dira. 10,15etan bederatzi urte artekoak; 10,30etan hamar eta hamabost urte bitartekoak eta 11,15etan gainerako korrikalariarentzat.

### • Istripu Aseguruak

Gaixotasun edo istripuetan kobratu ahal izateko

Huarte Gotzai 8, beheak • 31880 LEITZA  
Tel. (948) 61 09 19  
M<sup>a</sup> Jesus BARAIBAR



## AMEZTIA Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan  
Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE



Asteburuetan  
kontziertoak

Bokadilloak  
eta pintxoak

San Migel auzoa (Osasun Zentroaren ondoan) • © 450991 • DONEZTEBE

**Baztan**

# Oihanberrituta eremuak itxi eginen dira suteak ez gertatzeko

Baztandarra kooperatibak 610 milioi pezeta fakturatu zituen joan den urtean, batzar nagusian azaldu zenez

JOSEBA IGARABIDE

Azken aldi honetan ugaritu diren suteak direla eta, Baztango juntak, oihanberritutako eremuak bortz eta hamar urte bitartean itxiko direla erabaki du.

Erabaki honek eztabaida sortu du, suteen aurka daudenen artean ere. Batzuek ingurugiroa babestuko dutela erraten duten bitartean bertze batzuk ez duela deustarako balio diote eta bertze neurriak eskatzen dituzte, mendi garbiketa eta konpensazio ekonomikoaren bitartez.

Iruitako errekan eta Elizondoko Ezkaldoko inguruan sute haundiak izan dituzte. Orain bortz urte egindako haritz plantazioa erabat hondatua gelditu da.

## Mus txapelketak

Erratzu eta Amaiurko txapelketen finalak apirilaren 27an izanen dira. Afarirako txartelak salgai daude.



Animazio handia izan zen Udaberriko Ferian. Merkatu plazako aziendek gain bertako produktuen erakusketa izan zen. Horien artean, ikusgarrienak Sunbillako Jorajuria anaiek lur azpian egositako ogiak izan ziren

Argazkia: ONDIKOL

## Baztandarra kooperatibaren batzar nagusia burutu da

Baztandarra kooperatibak apirilaren 20an burutu zuen bere batzar orokorra Elizondoko Kasinoko areto nagusian. Iazko kontuak eta 1996ko aurrekontua eta egin behar dutenaren aurrikuspena agertu zen,

bazkal aitzinetik. Joan den urtean 610 milioi pezetako fakturazioa izan zuen kooperatibak, gaur egun 300 bazkide baino gehiago dituelarik. Berrikuntza bezala, gasoila komertzializatzeko asmoa dute aurten.

## Ongietorria preso egondako hiru gazteei

Iban Iparagirre, Aitor Nuñez eta Txema Ballarenari ongietorria egin zieten apirilaren 16an Elizondon, kartzeletik aske gelditu ondoren Txistulariak, txalapartariak... izan ziren.

## ttipi-flash

### ❖ Baztan errekek

Elizondon barna pasatzerakoan gainezka egiten du noiznahi uholdeak izaten direnean. Hau eragozteko, Berako Arkaitza enpresak egiten ditu defentsa lanak, 9.014.498 pezeten truke.

### ❖ Arizkungo

Bergara auzoko zaborte giaren egoera dela eta bere kexua agertu dio Balleko Etxeari Iratxe kontsumitzaileen elkarteak. Udalak, bere alde tik, Nafarroako Gobernuaren erabakiaren zain dagoela erantzun du.

### ❖ Iruitako

emakumeek afaria ospatuko dute larunbatean, apirilaren 27an. Izen ematea Olarin egin behar da 25a baino lehen.

## DOIKE euskara taldearen bazkide egin zaitez

DOIKE euskara taldea. 13. posta kutxa. 31700 ELIZONDO

bazkide txartela		urtesariak
1.deitura .....	2.deitura .....	<b>Aukerak:</b>
Izena .....	Tel. .... Etxea/familia .....	
Helbidea .....	Posta kodea .....	<input type="checkbox"/> Nork bere izenean (2.500 pta.)
Herria .....	Herrialdea .....	<input type="checkbox"/> Etxearen edo famiaren izenean (5.000 pta.)
Banku edo aurrezki kutxa .....		• <i>bietako bat aukera ezazu</i>
Sukurtsalaren helbidea .....		
Sinadura:		
Kontu korrante edo libretaren zenbakia		
□□□□/□□□□/□□□□□□□□□□□□		

## ERTZILLA

ALBAITARITZA

KONTSULTA

Txakur eta katuendako

ORDUTEGIA

10etatik 1etara eta 4etatik 2etara

Larunbatetan 10etatik 1etara

Santiago 30, © 580627

Larrialdiak: © 580762

ELIZONDO



# Kexa aunitz Basaburuan Belateko tuneleko lanak direla eta

Sartu-ateratzeko biderik ez egiteaz gain, bide seinaletan ez da agertzen Aniz eta Ziga herrien izenik

PABLO MENDIBURU

Jakina denez, Belateko lanak egiteko Almandoz eta Berroetako lur pila mugitu dituzte. Horregatik, Berroeta eta Almandozen sarrera eta irteerak egiten zirela espero zen, baina ez, lehen baino okerrago gelditu dira. Gainera, paratu dituzten seinaletan Ziga eta Aniz ez dira inon agertzen. Badirudi nekazal-turismoa izugarri bultzatzen ari direla, baina, nola jakinen dute kanpotarrek non dauden herriak eta landa-etxeak? Jendea Balleko Etxean eta Nafarroako Gobernuan kezkatzen ari da.

Berriz ere herri txikiak baztertuak gelditu behar ote dugu?



Belateko lanen gorabeherekin ez daude konforme Basaburuan Arg.:aramele

## Liburuaren Egunaren inguruan hainbat ekitaldi

Liburuaren Eguna ospatzeko erakuslehiu apainketa burutzen ari da apirilaren 22tik 26a artio. Haur eta helduendako narratiba liburuak Elizondoko

zenbait dendetan paratuko dira. Ortzegunean, apirilaren 25ean, arratsaldeko 5,30etan Itziar Zubizarretak ipuinak kontatuko dizkie 5 eta 8 urte bitarte-

ko haurrei liburutegian. Honetaz gain, irakurle helduek irakurritako liburuen agenda hartuko dute eta irakurle guzietako orri-seinalea jasoko dute.

### ttipi-flash

- ❖ **Argiztapen**  
berria martxan paratu dute Aniz eta Zigan. Herriek itxura hobea hartu dute. Berroetan lanean segitzen dute eta Almandozen oraindik esperoan omen daude.
- ❖ **Lapurretak**  
Almandozko Mitxeo ostatuan eta Iruritako estankotan ebatsi dute berriki.
- ❖ **Telefonoak**  
paratuko ditu laister Balleko Etxeak Arraioz eta Garzaingo eskoletan.
- ❖ **Arraiozko**  
eliza konpontzeko batzordea osatu da eta famili bakoitzak 30na mila pezeta ordaindu beharko duela kalkulatu du. Bertzalde, Arraiozko auzolanetan aritu direnen bazkaria maiztazaren leian egiten dute. Apuntatzeko epea apirilaren 25a bitarte zabalik izanen da.

M<sup>re</sup> Dolores Miñana  
**TOPOGRAFA**  
**NEURKETA • PLANOAK**  
Lur neurketak, Luberriak  
Plantazioak, etab...  
☎ 580143 - 989.445986  
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO

ARROPA DENDA  
**FANTXIKE**  
MERCERIA  
JAIMIE URRUTIA, 24  
TFNO. 580312  
ELIZONDO

**CERVANTES**  
**HELVETIA SEGUROS**

Era guzietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia

ESKATU ORDUA

**FOTO MENA**

FOTO MENAN EGUN NABARMENAK  
AHAZTEZINAK EGITEN DITUGU

**ZEURE JAUNARTZE EGUNEKO  
ARGAZKI HOBERENAK**

N. S. E. NAGUSIA 4 - TEL. ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE  
SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

**LARRALDEA**

**SAGARDOTEGIA**

Asteartetik ordira 8etatik aitzinerat  
Larunbata eta besta egunetan zabalik.

☎ 45 21 21 • LEKAROZ

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**UDABERRIKO  
ARROPAK**

Arropak, konplementoak, bitxiak,  
bainujantziak eta barneko arropak  
**Punta-puntako moda!**

Urdazubi

## Herriko gimnasia taldekoak Larrabide polikiroldegian izan ziren

Aurtengo ikastaroari akabera emateko afaria izanen dute larunbat honetan Koxka jatetxean

ALIZIA OLAIZOLA

Arkupeak elkarteak gimnasia saioak antolatu ditu urritik honat, astelehen eta ortzegunetan, arratseko 9,30-etatik 10,30ak artio. Gimnasia herriko frontoian egiten zuten eta irakaslea Elizondoko Esteban Leiza zen. Apirilaren 11n finitu zen ikastaroa eta bertze herrietakoekin batera Iruñeko Larrabide polikiroldegian gimnasia ikustaldi ezberdinak egin zituzten goizean. Ondotik harrialtxaileak aritu ziren. Bazkaria Iruña



Urdazubiko gimnasia taldeko batzuk Larrabide polikiroldegian

Park hotolean eta dantzaldia Arantzako Modestorekin izan zuten. Horrela finitze on bat eman zioten aurtengo ikastaroari eta

apirilaren 27an Koxka jatetxean afaria egin behar dute gimnasia parte hartu duten Urdazubiko 17 lagunek irakaslearekin.

**Xareta Bilbon**

Xareta izena duen turisma proiektuan elkarretatuak diren Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi ordezkariek izan dira Bilboko Expoturismo erakusketan. Inguru honetako gauza ezberdinak eraman zituzten erakustazokara eta hiru herrietako agintariak ere han izan ziren.

Zugarramurdi

## Jendea purrustaka ibili zen Aste Sainduko egunetan

Martxoaren 26an Elizondon atxilotu zuten Iban Iparragirre apirilaren 15ean askatu zuten

MARGARI ETA KORO

Ohikoa den bezala purrustaka ibili zen jendea Aste Sainduko egunetan, hunek ekartzen duen alde txarrekin: aparkalekua gaindizka, herriko karraketan autoak eta, makurrena, lezeraino jausen diren kotxeak promene joaten direnei oztopatzen eta lezokatea itxusten, aparkalekua balitz bezala.

Bertzalde, egun horietan zeramika erakusketarekin batera zurezko eskulturen erakusketa ikusteko au-

kera izan zen.

Eraberean, hiru toki gehiago edeki ziren herrian: Azketa pilotalekuko ostatu eta jatetxea, Laxoinean atorrak eta bertzeak saltzen eta Sutegian zonaldeko janari eta edariak. Momentuz hauek asteburutan baizik ez dute edekitzen uda ailegatu arte.

**Iban libro**

Elizondon bertze bi gazterekin, martxoaren 26an atxilotu zuten Iban Iparragirre apirilaren 15ean libro utzi zuten eta etxera itzuli zaigu.

Mikel Diezen omenez besta hunkigarria izan da aste ondar honetan. Euskal Herriko txotxongilo talde gehienak Zugarramurdi izan ziren, Ikilimiklik taldeko gaztea gogoratu bidenabarkoan Euskal Herriko I. Txotxongilo Topaketa burutzen



SARA

# Literatur lehiaketa antolatu dute herriko liburutegiko kideek

Aurtengo Euskal Idazleen Biltzarrak, bertzalde, arrakasta gutixeago ukan du antolatzaileen erranetan

MIXEL ETA JACQUELINE

'Saran astia' erran zaharraren inguruan Sarako liburutegiko kideek antolatzen dute idazki zoingehiagoka bat. Hau hiru sailetan banatua da: 10 urte artioko haurrentzat; 11 eta 20 urte artioko gazteentzat eta helduentzat.

Interesatua balinbazara zure eskuizkribua ekar ezazu herriko liburutegirat edo ezar ezazu bertako gutun kutxan zure nortasun ageri guziak idatzi ondoan (deitura, helbidea, adina) eta hori guzia ekainaren 15a aitzin. Lehiaketa hau saratarrei zabaldua da eta epai mahai batek hiru sari eskainiko ditu. Badugu Saran zer erran denborari buruz.



Martxoak 17. Larrun gainean elkartasunez.

## Euskal idazleen Biltzarrak arrakasta gutixeago ukan du

120 bat idazle bildu ziren bai eta ere aurtengo berritasunari jarraikiz, argialetxe zombait. Biltzarrak arrakasta gutixeago ukan du aurtengoa, usaiak kanpoko asteburuarengatik

iduriz eta antolatzaileek ziotenez ekitaldi hau berritz ere Bazko Astelehenez jarriko dute. Baina hortaz gain, biltzarra kari eskainiak izan diran bi sari nagusi. Biltzarra-

ren saria eskuratu du Janbattit Dirassar hazpandar idazleak "Hegiko bordatik" liburuarentzat eta Euskal Erakustokiko Adixki-deen Batasunak ere berea ukan du.

## Gaupasen aldia

Lehena apirilaren 30ean egingen da eta hau Olhain ikastola eta Sarako Gaztetxearen gain dago. Arratsko 11etatik aitzin, Keats, Deabruak Teilatuetan eta Sustraira taldeak arituko dira.

Urrats Gaua maiztaren 11n, aurtengo Herri Urratsko ekitaldieri hasiera emaiteko usaian bezala. Gaupasa hauen antolakuntzak lan ainitz emaiten du eta erran gabe doa lanean aritu nahi duten guziak ongi etorriak izanen direla.

Aintzinetik eskerrik beroenak gaupasetan parte hartuko duten deneri.

## ANZABAL AGENTZIA

### Zurich Aseguruak

%50eko saria hirugarrengoko aseguro poliza kontratatzen duen edozein ibilgailurentzat.

#### SENIOR POLIZA 50 URTETIK BEHITIKOENDAKO

CITROEN C15 MIXTA .....	40.640 Pta.
FORD FIESTA GHIA 1.8D .....	45.467 Pta.
RENAULT CLIO RT1.2 .....	45.035 Pta.

#### MASTER POLIZA 50 URTETIK GOITIKOENDAKO

CITROEN XANTIA XI.6 I.....	45.738 Pta.
NISSAN TERRANO V6.....	50.471 Pta.
FORD ESCORT GHIA 1.6 .....	45.090 Pta.

Aseguro mota guztiak: Etxebizitza, istripuak, komertzioak, Jubilazio Plangintzak...

Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe...

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

## DANBORIENTA OKINDEGIA GOZOTEGIA

© 453403 - ARIZKUN



## ARMUA Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

## HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin  
Guerendiaian

Tfnoa: 59 54 25 19  
64130 SARA



## Pierresenea

OSTATU - JATETXEA  
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

## EZKONTZAK

**Jose Gabriel Sarratea Rekarte** eta **Ana Isabel Altzugarai Iparagirre**, Legasa eta Sunbillakoa, martxoaren 2an.

**Jose Fermin Barriola Aierdi** eta **Aitziber Eskubi Encaje**, Leitza eta Iruñakoa, martxoaren 30ean.

**Ramon Lujanbio Ansa** eta **Ana Jimenez Tomasena**, Goizuetakoak, apirilaren 13an.

**Jesus M<sup>a</sup> Telletxea Etxarte** eta **M<sup>a</sup> Rosario Igoa Irigoien**, Igantzi eta Zigakoa, martxoaren 13an.

**Lazaro Urtsuegi Zubiri** eta **Julia Agirre Irigoien**, Elizondo eta Zigakoa, martxoaren 30ean.

**Carlos Bote Sanchez** eta **Antonia Reyes Yepes**, Madril eta Lesakakoa, martxoaren 30ean.

**Jose Agerre** eta **Isabel Iparagirre Sanzberro**, Amaiur eta Igantzikoa, apirilaren 13an.

## JAIOTZAK

**Iraitz Astibia Garmendia**, Leitzakoa, martxoaren 28an.

**Jokin Barberena Irigoien**, Leitzakoa, martxoaren 26an.

**Ibai de Mateo Zozaia**, Leitzakoa, martxoaren 30ean.

**Unai Juanena Iriarte**, Narbartekoa, apirilaren 5ean.

**Nerea Hualde Almandoz**, Elizondokoa, martxoaren 30ean.

**Iñaki Azpiroz Goikoetxea**, Iruritikoa, martxoaren 28an.

**Joseba Danboriena Gonzalez**, Elizondokoa, martxoaren 29an.

**Miren Maia Elizondo**, Lesakakoa, apirilaren 7an.

**Tamara Gil Aranguren**, Berakoa, martxoaren 29an.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA** 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO** polit bat oparitzen diegu. Amendako **"Está creciendo"** liburua daukagu.

**IRUÑEKO KUTXA**  
Turkio Lida Auzoko Kutxa

## HERIOTZAK

**Jesusa Lazkano Larrea**, Leitzakoa, martxoaren 16an, 96 urte.

**Eusebio Iriarte Garate**, Narbartekoa, martxoaren 22an, 74 urte.

**Carmen Zoco Loperena**, Elizondon, apirilaren 1ean, 89 urte.

**M<sup>a</sup> Jesus Aranburu Iriarte**, Elizondon, apirilaren 7an, 78 urte.

**M<sup>a</sup> Francisca Diaz Sanchez**, Elizondon, apirilaren 7an, 88 urte.

**Jose Aleman Etxenike**, Elizondokoa, apirilaren 9an, 86 urte.

**Jose Arrastio Etxekolanea**, Elizondokoa, apirilaren 12an.

**Felisa Antona Pascual**, Elizondon, apirilaren 14an, 81 urte.

**Martina Elgorriaga Zabaleta**, Lesakakoa, apirilaren 8an, 79 urte.

**Juan Mariezkurrena Ezkurra**, Eratsungoa, apirilaren 7an, 67 urte.

**Silvia Errandonea Elizondo**, Berakoa, apirilaren 5ean, 87 urte.

**M<sup>a</sup> Luisa Zaldúa Irizar**, Berakoa, apirilaren 9an, 93 urte.

**Kuana Amorena Beherekoetxea**, Sarakoa, martxoaren 28an, 84 urte.



## Bi arrazoi gehiago Pedro Garmendia-ra etortzeko

### Renault Mégane berriak ezagutu eta probatzeko

Baditugu zenbait arrazoi guregana etor zaitezen Mégane eta Mégane Coupé berriak probatzera. Ekipamendurik osoena duten serieko automobilak. Segurtasun uhalendako Eusle Sistema Programatua. Airbag. Edo frenatze ultramotzeko sistema esklusiboa. Arrazoi gehiago behar ote duzu guregana etortzeko? Zatoz Pedro Garmendia-ra Mégane eta Mégane Coupé Berriak probatzera, konpromisorik gabe. Kilikagarria izanen da. Seguru.

**RENAULT BERRIAK** **Mégane** GIDATZEN DUZU EDO ZAITUZTE?

**PEDRO GARMENDIA, S.A.**  
Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 ELIZONDO

**RENAULT**  
GIDATZEKO  
PLAZERRA

## BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak ..... 112/088

Osasun Zentruak

Elizondo ..... 452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka ..... 637428 / 637336

Leitza ..... 510248 / 510573

**Nafarroako Ospitaleak**

Nafarroako Ospitalea ..... 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino

Erresidentzia ..... 109400

Gurutze Gorria ..... 226404

**Gipuzkoako Ospitaleak**

Irungo ospitalea ..... 614600

Gipuzkoako ospitalea ..... 460299

Erresidentzia ..... 453800

**Anbulatorioak**

Irun ..... 630264 / 621106

**Anbulantziak**

Oitz ..... 450242 / 450805

**DYA**

Lesaka (Larrialdiak) ..... (943) 464622

Doneztebe (Larrialdiak) ..... 171717

**FUNERARIA**

Doneztebe ..... 450475

Elizondo ..... 580924

Lesaka ..... 637404

**Suhiltzaileak**

Oronoz-Mugairi ..... 592255

**Garraioak**

Bidasotarra ..... 631150

Baztanesa ..... 580129

Leitzarain ..... 515018

**Aberiak:**

Iberdroia ..... 450335 / 450336



Patxi Zabala goizuetarrak, Eluska Bergara beratarrak eta Baztan ikastolako Lander Santamaria eta Iñigo Belzunegik sari garrantzitsuak eskuratu zituzten.



## Eskualdeko ordezkariak ederki aritu dira Haur Kantu txapelketan

Elizondoko Iñigo Belzunegi eta Lander Santamaria eta Berako Eluska Bergara eta Estibaliz Agirre txapelkun

Martxoaren 31n Iruñeko Gaiarre antzokian burutu zen Nafarroako Haur Kantari txapelketaren finala.

Tikien mailan, Berako Labiaga ikastolako ikastolako Eluska Bergararentzat izan zen, Iparagirreraren 'Trapu Zaharrak' abestiarekin. Ahots onenaren sari berezia ere Eluskak eskuratu zuen. Maila honetan, Goizuetako Patxi Zabalak ere sari berezi bat etxeratu zuen, bere umore onarengatik.

Gaztetxoan mailan, bikotean artean Baztan ikastolako Iñigo Belzunegik eta Lander Santamariak irabazi zuten 'Baztan' abestiaz. Bakarlariekin artean, Berako Jesusen Bihotza ikastetxeko Estibaliz Agirre nagusitu zuen, 'Ana' pasodoble doinuarekin.

## Egonaldiak familia euskaldunetan euskara jorratu eta hobetzeko

'Egonaldiak familia euskaldunetan' plangintzan parte hartu nahi duten familiek apirilaren 27a bitarte izanen dute eskaera egiteko epea. Eskabideak HABEko bulego nagusian (Vitoria-Gasteiz kalea, 3, Ondarreta, Donostia) egin behar dira.

Jakina denez, egonaldi hauen helburua euskaraz ikasten ari direnei euskara landu eta hobetzeko aukera ematea da; horretarako, gehienbat euskaldunetz osatutako herrietan bizi diren familia euskaldunen etxetan egonen dira. Etxean ikasleren bat hartu nahi duen familia lau kidekoa izan beharko du guttienez, eta %70tik gorako euskaldun-kopurua duten herrietan bizi. Egonaldiak uztaile eta iraila bitartean egingen dira eta familia bakoitzak gehienez ikasle bat hartu ahal izanen du hilabete bakoitzeko, trukean 70.000 pezeta jasoz.

## FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



**MALDAERREKA, S.L.**

24 orduko zerbitzua Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritarra trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

**BIDASOA**



**OPTIKA**



**OPTIKO OPTOMETRISTAK**

Nafarroa Ibilbidea, 21  
Tfnoa. (943) 63 01 93  
IRUN

- IKUSMENAREN AZTERKETA OROKORRA
- UKIPEN LENTEEN ADAPTAZIOA
- HAURRENTZAKO IKUSMEN TERAPIA
  - Estrabismoa
  - Begi Alferrak

# Beti Gazte futbol taldea kategoriako txapeldun bezala igo da Preferentera

Bere multzoan lehendabizikoa izan ondotik, Ortzegun Santu egunean finala irabazi zion Tolosan Legazpiako Ilintxa taldeari

 Martxoaren 31n, ligako azken partiduan Trintxerpe taldeari 2-0 irabazi ondotik, joan den denboraldian galdu zuen Preferente maila berreskuratu du Lesakako Beti Gazte futbol taldeak. Ez zen partidu errega izan, bi taldeak puntuz berdinduak iritsi baitziren azken partidura eta Trintxerpek berdinketa nahikoa zuen taldeko lehen izateko. Halere, partidu erabakior horretan ez zuten hutsik egin lesakarrek eta mailaz igozteaz. Ondoren, ospakizuna umore ederrean egin zuten, txarangaren laguntzaz.

## 1. MAILAKO TXAPELDUN

Hirugarren aldia da Beti Gazte Preferente maila eskuratzen duela. Halere, inoiz ez zen Erregionaleko lehen mailako txapelduna izan. 1985-86 denboraldian igo zirenean promozioa jokatu behar izan zuten eta orain bi denboraldi zuzenean igo ziren, sailkapenean bigarrenak izan ondotik. Aurtengoan, Ortzegun Santu egunean Erregionaleko bertze taldean nagusitu zen Ilintxa taldearen kontra jokatu zuten finala Tolosako Berazubi futbol zelaietan. Oraingoan ere ez zuten hutsik egin Beti Gaztekoek eta partidu bikain batean 3-1 irabazi zuten legazpiarrei. Ondorioz, sekulan izan ez duten saria eraman zuten Lesakara. Aitzinetik, hori bai, mailaz igozteaz eta txapelketa ospatuz afaria izan zuten Tolosako sa-



Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailako txapeldun suertatu da lehen aldiz Beti Gazte elkarteko talde nagusia. Argazkia Tolosako Berazubi futbol zelaietan aterata da txapeldun kopa eskuratu ondotik Arg.: Fidel Ordoki

gardotegi batean, aurtengo sponsorra izan den jatetxe bati esker. **GURE TXOKOA SEIGARREN** Maila berean ari den Berako Gure Txokoa taldeak ere liga ederra

burutu du eta seigarren gelditu da sailkapen orokorrean. Bi taldeak lanean segitzen dute orain, kopa txapelketa murgilduak. Ea finala elkarren kontra jokatzerik baduten. ■

## 540 lagunek parte hartu zuten Lesakako IV. Herri Laisterketan



540 laisterkalarik parte hartu zuten martxoaren 31n Lesakan burututako IV. herri laisterketan. Horietatik 133 proba nagusian aritu ziren eta gainerako 407ak maila ttikienetan. Senior mailan, Lizarrako Gabirel Garin nagusitu zen, 8 kilometroak 23'22"tan eginez, Rafa Maritxalar lesakarra baino 12 segundo guttiagotan. Hirugarren postuan Angel Garate elizondarra eta laugarrenean Aingeru

Mindegia leitzarra sailkatu ziren. Emakumeen artean, Amelia Lorza donostiarrak irabazi zuen. Eskualdeko ordezkariak maila ttikienetan ederki aritu ziren eta hainbat mailatan irabazi zuten. Aurrebenjaminetan, Doneztebeko Pascual Bertiz nagusitu zen; benjaminetan Elizondoko Estibaliz Sarratea; alebinetan Igantziko Ione Dorronoro eta Berako Carlos de la Fuente eta infantiletan Elizondoko Iñaki Mihura.



### Leitzako Aurrera

futbol taldea Preferentera igozteko ligaxkan buru-belarri sartua dago. Hau idazterakoan, bere multzoko bigarrena da, jokatuak 3 partiduetatik 2 irabazi eta 1 galdu ondotik.

❖ **Ezkurra-Lizaso** erremontelari doneztebarrek bikote bikaina osatzen dutela erakutsi dute eta partidu zailak irabazi dituzte, koadroko pilotari onenei ustekabe bat baino gehiago emanaz.

❖ **Debuta profesionalean** Apirilaren 13an Elizondoko frontoan debutatu zuten profesional bezala Asier Olaizola eta Unai Apeztegiak. Goizuetako aurrelariak Mendia izan zuten lagun eta iturendarra, aintzin koadroetan Goñi lagun zuela aritu zen. Azken hauek 22-8 irabazi zuten.

## Hamabostaldiko Jokaldiak



### Lesakako IV. Herri Laisterketa.

Laugarren edizioarako 540 korrikalari biltzea maila haundiko proben artean kokatzen du Lesakako laisterketa. Horietatik 407 hamalau urtez behitikoak izatea etorkizuna segurtatua dagoela adierazten du.



### Asier Olaizola Goizuetako pilotaria.

Ez zuten berak nahi bezala hasi profesionaleko ibilbidea, lehen partiduan 22-8 galdu baitzuen. Bi hilabetez eskuko minarekin partidurik jokatu gabe egoteak izanen zuten, seguraski, zerikusirik. Beraz, animo!

DATUAK.....

# Miriam BLAS: «Mendi bizikleta jeitsieran uste baina gehiago nekatzen zara»

1 Miriam Blas, 16 urteko mendi txirrindularia, beratarra da.

2 Giza eta Gizarte Zientzietako Batxillergoaren lehen kurtsoa ikasten ari da Berako Institutuan.

3 Mendi bizikletan baino lehen errepidekoan aritu zen Gure Txokoaren eskutik, hamar urte zituela. Ondoren, futbiton eta crossean ere aritua da.

4 Bi anai-arreben artean zaharrena, aitarengandik omen datorkio bizikletarako afizioa.

5 Mendi bizikleta jeitsieran, gaur egungo Espainiako txapelketa da junior mailan.

Mendi bizikleta eta Bera aipatuz gero denoi Juan Carlos Garroren irudia datorkigu burura. Baina herrian bertan aunitzek ezagutzen ez duten Espainiako bertze txapelketa bat badute, Miriam Blas gaztea. Joan den urtean hasi zen mendi bizikleta probetan parte hartzen eta joan den urtean bertan, Espainiako jeitsiera txapelketa irabazi zuen junior mailan, senior mailan hirugarren geldituz. Munduko junior txapelketa hamargarren postua eskuratu zuen. Gaur egun jeitsieretan espezializatua dago –“hobe moldatzen nintzela ikusi nuen, rallyetan postu txarragoak egiten ditut”– eta Kataluniako Kopa irabazi berria du aurten berezitasun horretan.

**«JEITSIERA: LABURRA BAINA ARRISKUTSUA»**

Rallya eta jeitsieraren arteko ezberdintasun nagusiak galdetzerakoan, zera dio Berako neska. “Rallya Garrok egiten duena da, goiti eta behiti. Jeitsiera probek hiru eta zortzi minutu bitartean irauten dute, laburragoak dira. Hori bai, arriskutsuagoak dira eta indarra behar duzu, zenbait lekutan pedalei gogor eragin behar zaie eta



Miriam Blas, Anoetan aurten burutu den Euskadiko Irekian

gor eragin behar zaie eta. Nekatu ere egiten da, ez pentsa!”.

Mendi bizikleta gainean urtebete bertzerik ez badu ere, kirol honen gazi-gozaok probatzeko aukera izan du. “Oroitzapen onena Espainiako txapelketarena da eta txarrena

berriz, Azpeitiako jeitsiera batean izan nuen eroria: momentubatez hatsik gabe gelditu nintzen eta inoiz horrelakorik suertatu ez zitzaidanez, gaizki pasatu nuen”.

Deskantsu egun bat ezik, astean zehar egunero entrenatzen du Miriamek. “Beti bizikleta egiten dut, egunean ordu t’erdi edo. Luis Toribio irundarrarekin entrenatzen dut”. Denboraldi honetan Coronas talde fa-

matuaren izenean parte hartzen ari da, baina zail ikusten du profesionalki honetan aritzea. “Oraindik ez, hermendik urte batzutura, akaso. Ni oraindik gaztea naiz eta ez dut horretan pentsatu”. Gizonetik alde bertze kiroletan baino ttikiagoa dela uste du. “Gero eta gehiago gara honetan ari garen neska eta emakumezkoen maila bertze kiroletan baino garatuagoa dagoela uste dut”. ■

TESTUA:  
AITOR AROZENA

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KONTZERTUAK

### SUNBILLA

► **Apirilaren 27an**  
Fondan 'Otsondo 602 (Pottoka)' gaueko 11etan.

► **Apirilaren 30ean**  
Fondan 'Ehun Kilo' gaueko 11etan.

### GOIZUETA

► **Maiatzaren 5ean**  
mezondoren, Ataitz taldea elizan.

### ARESO

► **Maiatzaren 5ean**  
12etan, elizan, San Fermin abesbatza.

## GAU PASAK

### SARA

► **Apirilaren 30ean**  
Gaueko 11etan  
Keats, Deabruak  
Teilatueta eta  
Sustraiak taldeekin.  
Oihain ikastolak eta  
Sarako Gaztetxeak  
antolatua.

## EKITALDIAK

### ELIZONDO

► **Apirilaren 25ean**  
Liburuaren Egunaren  
barnean Itziar Zubizarreta  
ipuin kontalaria  
Baztango liburutegian.

### DONEZTEBE

► **Maiatzaren 6tik 10era**  
Euskararen Astea ospatuko da eskolan. (Xenetasunak 15. orrian).

## ANTZERKIAK

### BERA

► **Maiatzaren 1ean**  
arratseko 8etan Kultur Etxean 'Inessa de Gaxen' antzeslanaren entseiu orokorra.

# AGENDA PRAKTIKOA

## ERREZETA



### Almendrazko izozkia

#### Osagaiak 4 lagunentzat

• 2 arraultze • 100 gr. almendra, zurituak eta xigortuak • 2 jogurt • 2 goilarakada azukre • Ron likorra, baso erdia •

#### Prestatzeko modua

Arraultze goringoei 2 goilarakada azukre bota eta irabiatuko ditugu. Almendren erdiak xehe- eta irabiatu ditugun arraultze goringoekin nahasiko ditugu.

Segidan likorra eta 2 jogurtak ere gehituko dizkiogu. Guztia ongi ongi irabiatuko dugu, molde batera bota eta izozkailuan sartuko dugu ordu batez.

Denbora hori pasatu denean, izozkailutik aterako dugu eta berri- z ere dena ongi ongi irabiatuko dugu.

Azkenean, presentagarriagoa izateko, kopa edo basoetan ba-



Ana ZOZAIA

Urrozko Ostaturkoa  
•URROTZ•

natuko dugu irabiatu berri duguna eta izozkailuan sartuko dugu ongi izoztu arte.

**PRESENTAZIOA:** Kopak izozkailutik ateri eta gelditu zaizkigun al- mendrekin apaindu. On egin!

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.300 pzta.  
• **Zerri gizona** (95-100): 188pzta./kilo  
• **Zerramak:** 120-125 pzta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak:**  
• **Idixkoak:** Pzta./kg. Kanal  
Extra ..... 550-570  
1.koa ..... 530-540  
2.koa ..... 500-510

• **Urruxak:** Pzta./kg. Kanal  
Extra ..... 560-580  
1.koa ..... 540-550  
2.koa ..... 510-520  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urru- xentzako.

• **Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):  
**Nabarrak:** urruxak 22.000 eta idixkoak 24.000 Pzta.  
**Mestizoak:** urruxak 28.000 eta idixkoak 40.000 Pzta.

**Behi zaharrak:**  
Behi nabar gizona: 360 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 420 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE,  
ZUBIRIA MINDEGIAK...



### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza  
• **Bertako sagarrondoak** 950.  
• **Udareondoak** 950 pzta.  
• **Gereziondoak** 1.050 pzta.  
• **Aranondoak** 1.050 pzta.  
• **Muxika** 880 pzta.  
• **Urritza** 880 pzta



### ❖ LANDAREAK ❖

• **Porruak** zientoa 400.  
• **Tipulak** zientoa 800.

## ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN  
Tfnoa: 45 04 91

## koxkonta



Sagardotegia zabalik

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**



### Satelite Bidezko Telebista

Telebista sistema honen funtzionamendua ezaguna den arren, zertxobait argitzen saiatuko gara. Lurrean seinalea produzitu ondoren sateliterat bidaltzen da. Sateliteak ispilu modura funtzionatzen du eta seinalea errepikatu ondoren lurrera itzultzen du berriro, eta antena parabolikoaren bitartez gure etxeko teledistan ikusi ahal dugu.


Antena parabolikoaren bitartez hartzen ahal diren kateak, bakarrik sistema hau erabiltzen dutenak dira eta ez lurreko linea erabiltzen dutenak, hau da: TV1, TV2, ETB, Tele5...ezin dira sistema honen bidez ikusi.

#### SATELITE AUNITZ

Batzuk militarrek, bertzeak eguraldia iragartzeko eta bertze batzuk komertzialak dira. Etorkizun handiko medioa dela erran daiteke zalantzarik gabe, urtetik urtera gehiago baitira espazioratzen direnak.

#### SATELITE KOMERTZIALAK

Aunitz daude, batzuk aipatzekotan, ezagunenak aukeratu ditugu: ASTRA, EUTELSAT, HISPASAT, INTELSAT, TELECOM. Potentzia diferentea dute



Antena parabolikoaren bitartez ikusi ahal diren kateak mundu mailakoak kateak dira, kirola, musika, albiste etabarretan espezializatutako kateak gehienetan.

eta horren arabera etxean jarri beharko dugun parabolaren diametroa ere diferentea izanen da. Honela parabolika erosterakoan, lehenengo, programazioa edo zein kanalekin sintonizatu

nahi dugun aukeratu behar dugu, programazio diferentetan espezializatuak baitaude sateliteak.

#### PROGRAMAZIOAK:

Kirolak: EUROSPORT eta BSF ditugu.  
Musikalak: VIVA, VIVAI, ONYX, MCM, MTV.  
Denetarik: GALAVISION, RAI1, RAI Due, RAI3.  
Albisteak: EURONEWS, CNN.

#### PREZIOAK

Ekipoaren prestazio eta kalitatearen arabera egoten da prezioa, baina 35.000 pezetetatik aurrera aurki daitezke. Etxean dagoen edozein teledistan balio du eta erosi eta instalatu behar diren ekipoak sinpleak dira, parabola eta errezeptorea.

*EUROSPORT, EURONEWS eta CNN bezalako mundu mailako teledistan kateak ikusi ahal dira antena parabolikoaren bitartez.*

## MENDI IRTERAK

### ELIZONDO

► **Apirilaren 28an** Baztango Mendigoizaleak Baigorriko Nafarroaren Eguna.

► **Maiatzaren 5ean** Baztango Mendigoizaleak Belate-Mugaire ibilbidea egingen dute.

## KAFE - ANTZERKIA

### ELIZONDO

► **Apirilaren 26an** gaueko 9,30etan, 'Quo no vadis' antzeslana eskainiko du La Pera Llimonera taldeak Kasinoan.

► **Maiatzaren 3an** gaueko 9,30etan, 'Umekeriak' antzeslana eskainiko du Tiantakak (Jose Ramon Soroz) Kasinoan.

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

► **Apirilaren 2tik maiatzaren 3 artio** Arizkunenean Juan Carlos Olaetxea pintore Beratarren lanak.

## GUARDIAKO BOTIKAK

► **Apirilaren 22tik 28a** Arantza, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

► **Apirilaren 29tik maiatzaren 5era** Lesaka, NARBARTE, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► **Maiatzaren 6tik 12ra** Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

**BORTZIRI**  
ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA  
Tfnoa: 63 10 91  
Iturlandeta, 1 • 31780 BERA

CANAL

Televis

### GISA GUZIETAKO ANTENEN INSTALAZIOA:

- Kolektiboak
- Indibidualak
- Parabolikoen instalazioa 50.000 Pptatik. aitzinera.

*Aurrekontuak konpromisurik gabe eskatu*

## ETXEBIZITZAK

**BERA.** Pisua salgai. 80 m<sup>2</sup> plantan eta 40m<sup>2</sup> ganbaran. Erreformatu behar da. ☎ 630931 edo 943-624540.

**BERA.** Pisua salgai, egoera onean, hagitz ederra. Kalefakzioa, armario enpotratuak eta sukalde ekipatua. ☎ 630686.

**BERA.** Legia karrikan pisua salgai. 10 milioi pezeta. ☎ 908.143716.

**BERA.** Pisua alokatzen da. ☎ 630597 (eguerdi eta arratsetan).

**DONEZTEBE.** Pisua salgai. ☎ 631367 (arratseko 8,30etatik aitzinera).

**DONEZTEBE.** Pisu bat, alokatu nahi nuke, mobleztatua edo moblerik gabe. ☎ 450326.

## DENETARIK

**BERA.** Bajera salgai Legia karrikan. 2.500.0000 pezeta. ☎ 630686.

**LESAKA.** Areto komertziala, herriaren erdi-erdian dagoena, eskualdatuko nuke. 140 m<sup>2</sup> ditu. Merkea. ☎ 637050.

**Kongeladorea** erosiko nuke. ☎ 451774 (Nagore).

**Jangelako armairu** eder bat salgai. Gaztainezkoa eta gaztela aldeko estilokoa. 2,80 zabal eta 2 m. altueran. ☎ 627654 arratsaldetako 7etatik goiti.

**Pago egurra** ttikitua eta idorra salgai. ☎ 610686.

Esnea hozteko **tankea** erosiko nuke. ☎ 627531 edo 908.778894.

420 litroko **esne tankea** salgai Saran. ☎ 07.33-59542788.

**Berako** Agerra edo Anso-neako telefono kabinan kartera bat galdu zen orain dela hilabete bat, dirua eta dokumentazioarekin ☎

634011 (Eskertuko da).

150 litroko **esne tankea** saldu nahi dut edo 100 litroko baten ordezkatu. ☎ 452483 (arratseko 8,30etatik aitzinera).

**ZUGARRAMURDI.** Jate-txea alokatzen da. ☎ 599094.

Bigarren eskuko **piano bat** erosiko nuke. ☎ 353063 (Joaquin).

Bi **logeletako mogleak** salgai (3 ohatze, 4 mesilla, bi tokadore eta armarioa). ☎ 637998.

**Karro-denda** salgai, egoera onean eta merke. ☎ 943.631186.

**Akumuladore estatikoa** Fagor markakoa salgai, 3'2 Kwkoa, 6 auxiliarekin, estreinatua gabea eta hagitz prezio onean. ☎ 627642, arratsaldetan.

**Sarrailadun armairuren** bat soberan bazenu, gus-tora hartuko genuke Berako Uxua Emakume Taldean. ☎ 631119 (M<sup>a</sup> Carmen) edo 630002 (Mertxe).

Cota 310 **motoa** salgai, hagitz gutti ibilia eta prezio onean. ☎ 637040.

Patrol luzerako **parrilla galbanizatua** salgai: 2,54 m. luzera eta 1,36 m. zabale-ra. Bigarren eskukoa eta egoera onean. ☎ 634039 (Arantza).

**Frigorifikoa** salgai. Gasezkoa da, hozkailua eta guzi. Berri berria. Argi indarrak ez dagoen lekutarako oso egokia. ☎ 510265.

## IBILGAILUAK

**Audi** **VW** **SAMPI ARAGON**

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

**Erremolkea** salgai, bitatatako suspentsioarekin, igeltsero edo mendi lanerako espeziala. Prezio onean. ☎ 908.776147.

**Land Rover** luzea salgai, SS-M. Egoera onean dago. ☎ 514125.

**Peugeot 405 SRTT Turbo** Diesela salgai, NA-AH matrikuladuna. ☎ 510558 edo 510460.

**Renault 6a** salgai. 50.000 Pta. Egoera ona. ☎ 631023 (arratseko 8etatik aurrera)

**Opel Ascona SS-W** salgai. 300.000 Pta. Egoera onean. ☎ 943-493538.

**MENDAUR MOTOR**

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko autoetan aukera zabala: Suzuki Vitara NA-AF, Golf Turbo Diesel, Suzuki luzea, Land Rover...

## AZIENDAK

**Pointer** arrazako ehizi xakurra salgai. 6 hilabetekoa. ☎ 637965 (Ilunabarretan).

Setter baten **zakurkumeak** oparitzen ditut. ☎ 627618 (Iñako).

Pointer arrazako **txakur** bat azaldu da Lesakan. Txuri-

beltza eta zahar xamarra. ☎ 627661.

**Bi ahari** salgai, hiru urtekoak, adarrekin. Bat mutur gorria eta bestea zuria. ☎ 610704.

## LANA

**Neska bat** behar da Iruñean lan egiteko (interna bezala). Interesaturik egonez gero, deitu ☎ 225210ra.

**Mikrofusio tailerra** osatzeko pertsona serioa bilatzen dut. Nik inbertsioa eta esperientzia paratzen dut eta zuk lokala (20 m<sup>2</sup> guttienez) eta laneko gogoia. Beran edo inguruan. Elkar ulertuko dugu. ☎ 07.33.59542317 (Jose Ignacio).

**Neska euskalduna**, 29 urtekoa, lan eginen luke Lesaka edo Arantzan, jabetxe edo adinekoak zaintzen. Esperientzia eta in-formeak. ☎ 387063 edo (943) 556198 (M<sup>a</sup> Luisa).

## AGURRAK

**Leitzako** Mirari Erbitiri zorionak bere urtebetetze egunean eta beste asko betetzeko. Beretaz asko gustatzen den mutiko baten partez, O. Bengoetxearen partez.

**Iruritako** Guillemmori: oso ona zaude eta mutil jatorra zara. Neska batzuren partez.

**Narbarteko** Maria I.ri: egun

hauetan harrotua zabilta. Gure amastadea galtzen ari zara. Zuk dakizun lagunak.

**Naike:** oso lagun ona zara. Lagun batzuren partez.

**Toki Onako** Marinarentzat; ez erre, mesedez, zakar gehiago. Berako Ginpis.

**A.ren** partez Mugairiko Rubenentzat: ez aldatu.

**Berako** Igor "la casita de muñecas"-eri: ailetuko ttuk bueltak. Zure klaseko bi nesken partez.

**Etxalarko** Beleni: ea noiz ausartzen zaren Jorgerekin hitzegiten. Badakigu gauza asko gertatu direla baina hori berdin da, oraindik baduzu aukerarik. Zure aldetik zerbait jarriz gero lortuko duzu. Animo. Iker I. eta Alberto Z.

**Narbarteko** Maria I.ri: ez erre hainbeste, txarra da eta. Institutuko lagunak.

**Berako** Patriziari: ez gezurrik erran, bertzela su-durra gehiago haundituko zaizu.

**Juli T.ri:** udaberri hontan berriro zure zain. Muxuak. Tarzan.

**Urrozko** Mikel Z. rendako: herriko bestetan arras ongi pasatu genuen, espero dut berriro elkarrekin egotea. Zuk dakizun herriko neskatza maitea.

**Lesakako** sokatira taldeari: urtero bezala kriston tenporada egiten ari zarete, nahiz eta jendeak ez baloratu. Animo Euskadiko finalerako. Aupa gu.

**Zugarramurdiko** Maider Amorenari: zorionak urtebetetze egunean (apirilak 25) eta ea txapain pixko batera gonbidatzen diguzun. AA, YS, EA eta GM.

**Berako** Itziar Andueza eta Kristina Tapiarentzat zorionak urtebetetzeagatik (14 urte). Zuen lagunak.

## ttipi-ttapa

### Gida Komertziala 96

Elektrizista baten bila zabilta?  
Gida honetan topatuko dituzu  
inguruko guztien telefonoak.





# BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

## Jakinarazten da:

1996ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratu behar direla, segidan seinalazten den bezalaxe:

### Ordaintzeko modua:

#### Ordainketak banketxetan helbideratu ez dituztenek:

Abisuan agertzen den kontura ordainketa eginez edozein banketxetan, abisua hirukoiztua aurkeztuz.

#### Ordainketak banketxetan helbideratuak dituztenek:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

### Ordaintzeko epea:

- 1996ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea ekainaren 30a arte luzatuko da, %5aren errekarua aplikatzen ahal delarik.
- Epe hau pasatu ondotik premiamenduzko exekuzio bidez %20aren errekaruarekin kobratuko da.

*Bortzirieta, 1996ko apirilaren 1ean*

Presidentea  
Miguel M<sup>a</sup> Irigoien Sanzberro

## 1996. URTEKO TASAK

### ERABILTZAILAEN eta TASEN MAILAK

Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez: 6.620 pezeta.

Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak: 5.630 pezeta.

Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak: 4.630 pezeta.

**1. Merkataritza eta zerbitzuak.** Elikagaien eta elektragailuen sektorekoak ez direnak: mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ilepaindegia, lan bulegoak: 6.620 pezeta.

**2. Merkataritza.** Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari dendak), elektragailu dendak eta farmaziak: 13.190 pezeta.

**3. Merkataritza. Autozerbitzuak:** 19.800 pezeta.

**1. Ostatua.** Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarrailan irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m<sup>2</sup>ko edo gutxiagoko azalera dutenak: 13.190 pezeta.

**2. Ostatua.** 30m<sup>2</sup> baino azalera handiagoko ostatuak eta janaridenda daukaten ostatuak: 26.400 pezeta.

**3. Ostatua. Pub eta diskotekak:** 32.990 pezeta.

**1. Jatetxea.** Modu iraunkorrean irekiak dauden elkarte gastronomikoak, eta borts mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak: 32.990 pezeta.

**2. Jatetxea.** Borts mahai baino gehiago dituzten jatetxeak: 59.380 pezeta.

**1. Hostala.** Hamar logela edo gutxiagokoak: 46.170 pezeta.

**2. Hostala.** Hamar logela baino gehiagokoak: 65.970 pezeta.

**Merkataritzako saltokiak,** jate-terrik gabekoak: 65.970 pezeta.

**Merkataritzako saltokiak,** jate-txedunak: 98.960 pezeta.

**Lantegiak,** lau langile bitarte: 6.620 pezeta.

**Lantegiak,** 5-10 langile bitarte: 13.190 pezeta.

**Lantegiak,** 11-30 langile bitarte: 32.990 pezeta.

**Lantegiak,** 31-60 langile bitarte: 65.970 pezeta.

**Lantegiak,** 60 langile baino gehiagorekin: 98.960 pezeta.

Zuzenean zabortegira botatzea: 220 pezeta metro kubikoa.

# 1995

## ERRENTAREN AITORPENA

**Zatoz lehenbaitlehen,  
eta berehala eginen dizugu  
denborarik galdu gabe**



BERA




DONEZTEBE



LESAKA



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



### Hiru hitzetan: Polo. Diesel. Berria.

...orain Sampi Aragonen

**1.656.000** P<sup>tatik</sup>. aitzin



Volkswagen

**SAMPI ARAGON**

Leitzako errepidea • ☎ 450354 / 450759  
D O N E Z T E B E